ARGIA

Murrizketak euskararen normalizazioan

22-27.orriak

#2.696 | 2020 / 07 / 26 | 3,90 €

Turismoaren Zero Urtea?

10 I NET HURBIL

"Jendeak ez daki triste egoten"

28 I MALENE SAN PEDRO

LARRUN #254
Autodefentsa digitala

Amul been nit ku leegalul
inor ez da ilegala

ARGIA

Artikulu hauek erosita ekarpen ekonomikoa egingo diezu **Mbolo Moye Doole**ren erresistentzia kutxari eta **Argia**ri.
Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!

15€*
KAMISETAK

8€*
POLTSAK

14€*
PAPE NIANG
HASIERA BERRI BAT
LIBURUA

24€*
JERTSEAK
4 KOLORETAN

Eskaerak egiteko sartu: **AZOKA.ARGIA.EUS** edo deitu **943 37 15 45** telefonora

*Bidalketa gastuak 4€

ARGIA

2.696 zenbakia I Uztailak 26, 2020

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
08 I EKONOMIAREN TALAIAN
09 I HUMANITATEAREN UNE GORENAK
09 I EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
PAULA ESTÉVEZ

Iritziak

17 I KARMELO LANDA
18 I BEA SALABERRI
19 I KOLDO ALDALUR
19 I CASTILLO SUÁREZ
20 I ENEKO OLASAGASTI

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

40 I DENBORAREN MAKINA
41 I ARGIA KOMUNITATEA
42 I BIZI BARATZEA
48 I KULTUR-KRITIKAK
50 I ZUZENEKO EMANALDIA
51 I DENBORA-PASAK
52 I ARGI-KONTRA: MARITXU LARZABAL
54 I BERANDUEGI

DANI BLANCO

10 I **TURISMOAREN 0 URTEA?**
Turismoa bere hirugarren iraultza betean zegoenean harrapatu du koronabirusak. Oporrak etxetik ahalik gertuen gozatzea estimatuko ote dugu aurrerantzean? Edo betiko turismo eredua sustatuko dute erakundeek sutsuki? Pello Zubiriaren Net Hurbileko artikuluak galdera hau eta beste hainbat planteatzen ditu.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 I MAITE SÁNCHEZ
"Badirudi emakumeok beti behar dugula gizon bat ondoan baserritik bizi ahal izateko"
Reyes Ilintxeta

22 I EUSKARA
Osasun krisia aitzakia perfektua euskarari aizkorakadak emateko
Onintza Irureta

28 I OSASUNA I MALENE SAN PEDRO
"Egungo arazo handienetakoa da jendeak ez dakiela triste egoten"
Mikel Garcia Idiakez

31 I HERNIOKO SAROBEAK
Mendian hiru solairu, hiru jarduera ekonomiko
Josu Narbarte Hernández

34 I NAOMI KLEIN
Distopia teknologikoa azkartu shock pandemikoa baliatuz
Zigor Oleaga

36 I GARI BRAVO
"Gaur egun oso garbi dago txirrindularitza"
Eñaut Agirrebengoa

47 I KULTURA I "BAGA, BIGA, HIGA... SENTIKARIA"
Taldearen hasiera... eta amaiera
Urko Apaolaza

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Eizagirre, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olasolo, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

CC BY SA

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

Enegarrena

Independentzia prozesuaren aurkako auziagatik preso dauden bederatzi politiko katalanek hirugarren gradua lortu arren, helburua "jazarpena behin betiko amaitzea" dela adierazi du Jordi Cuixartek –irudian– kalea zapaltzean. Arrazoi faltan ez zen. Egun bat lehenago jakitera eman zen Kataluniako Parlamentuko presidente Roger Torrent eta CUPeko diputatu ohi Anna Gabrielen mugikorrak espiatu zituela Espainiako Gobernuak. Arerio politikoa eta ordezkatzen dituzten herritarren asmoak suntsitzeko, Espainiako estolderiak ez dio inoiz uko egin lege barru zein kanpoko amarru guztiak erabiltzeari. Kate luzearen enegarren adibidea.

LA REPÚBLICA AXIER LOPEZ

MOTZEAN

89 urterekin zendu da Lucio Urtubia Jiménez (Cascante, 1931) bere Parisko etxean. Militante anarkista gisa egindako ibilbideagatik da ezagun eta erreferente.

Osakidetza pandemiari buruz datu gutxiago ematen hasi da, EAEko kutsatu kopurua handitzen ari den arren.

Donostiako Zurriolako hondartzan protesta egiten ari dira sorosleak. "Donostiako Udalak eta BPX Sport enpresak hondartzetako sorosleoi zein baldintzetan lan eginarazten diguten jakinarazi nahi dugu".

Aterpetxe bat irekiko dute Angelun, indarkeria matxista jasaten duten emakumeentzako.

Txina osoan zehar 33 ibaik aspaldiko urik gehien dakarte egunotan, aurreko asteetan izandako euriteek eraginda. Uholdeak atera dira eskualde askotan eta egoerak okerrera egingo duen beldur dira.

60 orduan euskarazko gutxieneko ulermen maila eskuratzeko metodologia sortu du Pello Jauregik. Uler-saioak metodologia garatu du eta Soziolinguistika Klusterrak lizentzia librean zabaldu du lana.

DANI BLANCO

Musukoa jantzita eramatea, derrigorrezkoa

ARGIA

Hego Euskal Herrian, joan den astetik derrigorrezkoa da musukoa jantzita eramatea leku publiko guztietan, kalean bezala komertzio edo ostatuetan, pertsonen arteko distantzia edozein dela ere.

Datu kezkagarriek ekarri duten neurrietako bat da hori, izan ere, gero eta gehiago dira COVID-19ak kutsaturikoen fokuak. Dena den, neurriak gogortzeko erabakia EAEko Eusko Legebiltzarra osatzeko hauteskundeak pasa arte itxaron duela leporatu dio hainbatek Eusko Jaurlaritzari.

Ostalaritzan, taberna, jatetxe eta elkarte gastronomikoetan musukoa erantzi daiteke soilik jan edo edateko unean, beste une orotan jantzita eduki behar da. Gainera, mahai baten inguruan gehienez ere 10 pertsona egon daitezke, barruan bezala kanpoan. Ordutegien luzapenak etenda geratu dira.

Hondartzetan eta igerilekuetan ere maskara erabiltzea derrigorrezkoa da joan-etorrietan, soilik kendu ahal da etzatean edo esertzerakoan, eta hau ere pertsonen artean metro eta erdiko tartea gordeta eta maskararik gabeak elkarbizitza unitate bereko pertsonak izatekotan.

Espainiako Estatuan gero eta gehiago dira derrigortasunaren bideari ekin diotenak eta maskara jada derrigorra da Katalunian, Balear Uharteetan, Extremaduran, Aragoin, Andaluzian eta Errioxan.

MUGAK BERRIZ ITXITA?

Bestalde, konfinamendu garaian gertatu bezalaxe berriz ere Hego eta Ipar Euskal Herriaren artean mugitzeko eragozpenak egon litezke etorkizun hurbilean. Izan ere, Espainia eta Frantziako estatuen arteko muga behin-behinean ixteko erabakia har dezaketela iragarri du Frantziako lehen ministroak. Katalunian koronabirusak kutsaturikoen kopurua hazten ari dela-eta, horren aurrean hartutako erabakia izango litzateke.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Hizki baten berebizikotasuna

ARITZ GALARRAGA

Pentsa une batez albistegia lasai asko ikusten ari zarela, eta, tupustean, zure heriotzaren berri ematen dutela –fantasia bezala ez dago gaizki, zure hiletan jendeak zutaz zer esango duen imajinatzea bezala; baina ez esan ez denik era berean durduzagarria–. Bada halako zerbait gertatu zitzaion jende ez gutxiri orain ez asko, baina beren heriotzarekin baino, eutsi gogor, neronenarekin. Antza nire izen-abizen bereko pertsona baten heriotzaren berri eman zuten hedabideek, antza helikopteroarekin izandako istripu baten ondorioz. Nire izen-abizen bereko esan dut, diferentzia batekin: hizki bat, hatxe bat, Aritz izan partez Haritz baitzen zendutakoa. Eskerrak eman nahi dizkiet publikoki euskara batuaren hastapenetan hatxearen alde egin zutenei. Bizitza salbatu didazuela esan daiteke.

Jendeak ez zion detaileari erreparatu –edo detailea erreparaezina zen, adibidez ahozko hedabideetan–, eta egun hori pasa behar izan nuen nire heriotza ezeztatzen –baten bat ez zen gehiegi poztu ezeztapenarekin–. Sentsazio arraroa izan zen, eta atsegina, bizirik nago, behin eta berriro errepikatu behar izatea –azkenerako ia nire buruari sinestarazteraino–. Ez da noski izen-abizenekin izan dudan lehen gaizki ulertua. Beste behin, kazetari gisa dei bat egin behar izan nuen, eta telefonoaren bestaldean zegoenak, nire aurkezpena entzun bezain pronto, ea Segiko buruetako bat –oximoron?– nintzen galdetu zidan, ezagutzen ninduela. Erantzun nion ezetz, bistan da, ia berdin deitzen zen beste tipo bat nintzela, bizitza hain kitzikagarririk ez zeramana, baina insistitzen zuen, beldurtzera ere iritsi nintzen, ea polizia ote zen, eta telefonoa eskegi nion.

Orain arteko kalaka hau: hizki baten, gauza txikien, itxuraz ezdeusak direnen berebizikotasuna aldarrikatzeko, kartzelan denboralditxo bat pasatzetik, bizitza bera salbatzera irits daitezke eta; ordainetan bizitza anodino bat eskaintzen badizute ere. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

"TROIKA ITZULI EGINGO DA"

YANIS VAROUFAKIS, GREZIAKO FINANTZA MINISTRO OHIA

"Europako Batasunaren susperraldi funtsa ez da kolpetik etorriko, diru pixka bat egongo da hemendik, beste pixka bat handik, beti ere enpresari mesede egiten dieten baldintzekin. Beraz, troikaren itzulerarekin kezkatuta bazaude, arrazoiak dituzu. Troika itzuli egingo da, berreraikitze funtsa alde batera utzita, orain etenda dagoen eta luzaroan etenda jarraituko ez duen itun fiskala berrezartzen denean gertatuko da. Alemaniako aurrekontu federala disfuntzionala bihurtzen den unea izango da hori. Eta orduan, Espainia, Italia, Portugal eta Frantziako Finantza ministroak, troikak 2010 eta 2015 artean egiten zuenaren oso antzera estutuko ditu. Varoufakisek "austeritate masiboa" iragarri du. **ELDIARIO.ES (2020/07/15)**

EKONOMIAREN TALAIAN

Gutxieneko diru-sarrerak eta erregeen soldatak

JUAN MARI ARREGI

Pandemiak agerian utzi ditu Espainiako Estatuan –baita Hego Euskal Herrian ere–, pobrezia eta bazterketa sozialaren poltsak, langabezia, prekarietatea, zaharren egoitzen abandonua, osasun arloko murrizketak... Honek guztiak ondorioak ekarriko ditu, enpresen itxierak eta milaka enplegu galtzea, besteak beste. Administrazioek eta gobernuek helburuak lehenetsi beharko dituzte.

Testuinguru horretan, gogora ditzagun ezabatu edo murriztu beharreko gastuak: armada, inbertsio militarra, alderdi politikoen gehiegizko dietak, AHT moduko lan antisozialak, baita Espainiako monarkia ere. Azkeneko horren gastuei erreparatuko diegu, euskaldunok ere eusten baitiegu zergekin borboien demasiei.

Urtean 8 milioi euro dira Espainiako Errege Etxera bideratutakoak. Soldatetan, errege-familiak 679.559 euro jasotzen du. Felipe VI.ak urtean 242.769 euro irabazten du, 19.517 euro hilean. Bere emazte Letiziak beste 133.530 euro. Juan Carlos I.ak 194.000 euro jasotzen zituen oraintsu arte –martxoan Suitzako bere barrabaskeriak ezagutu ziren arte– eta Sofiak 109.260 euro. Zarzuelan, gainera, 2.000 bat pertsonak egiten dute lan monarkiaren zerbitzura: 300 inguruk bere bulegoetan eta beste 1.500ek errege guardiako kide gisa. Guardia hori urtean beste 7 milioi euro kostatzen zaigu.

Familia bakarrari dirutza hori ematen dioten bitartean, milioika pertsona bizi dira gutxieneko soldatarekin (950 euro), alarguntasun-pentsio eskasekin (639,50 euro), DSBE laguntzarekin (680 euro), edo Bizitzeko Gutxieneko Diru -sarrerarekin (562 euro); eta beste dozenaka mila ikusezinak dira, ez baitute ezer jasotzen. Erregeak zergatik kobratu behar du hilero, milioika herritarrek urtebetean, bitan edo hirutan kobratzen ez dutena? Lotsagarria da. Baina are lotsagarriagoa politikariek hori onartzea. ●

ANALISIA

Penko kolektiboa hauteskundeetan

ZIGOR OLEAGA

Demokrazian *penko*, suspentso, kate, gutxiegi. Politika egiteko oinarritzat hauteskundeak eta bozak dituen jendarte batek hori esan beharko lioke bere buruari herritarren erdiak "festan" parte hartu ere egiten ez duenean, ezta? Ofizialki ozta-ozta gehiagok eman du bozka EAEko Legebiltzarra osatzeko azken hauteskundeetan, bai, %52,86ak. Espainiako nazionalitaterik eta hortaz bozka eskubiderik ez duten EAEko herritarrak hautesle erroldara batuz gero –166.695 lagun 2019an–, %48,09koa litzateke parte-hartzea. Gehitu daitezke nazionalitatea izanik ere bozka eskubiderik ez duten migratzaileak, milaka euskal herritar papergabeak, Trebiñu eta Villaverde Turtziozeko biztanleak, berrogeialdian egoteagatik eskubiderik gabe geratu direnak (!?!?), bozka baliogabeak...

Kantitateak beste arduratu beharko gintuzke kalitateak. Eta ez naiz ari bozka nori ematen zaion, baizik eta nondik. Bozkatu duten herritarretatik zenbatek egin dute zerbaiten alde baino, zerbaiten aurka? Zenbatek ezagutzen dute bozkatu duten programa? Zenbatek egin dute izapide burokratiko bat betetzen duenaren izpiritu etsituz, errutinagatik, edo familia politikoari zor zaion fideltasun hutsagatik? Zenbaketa azkarrago egitearren: zenbatek egin du ilusioz, pasioz, hautesle komunitate osoarentzako ona den zer edo zer garrantzitsua erabakitzen denaren ustetan?

Politika esparru publikoari (*polis*-ari) dagokiona bada, eta pertsonala politikoa bada, dena da politika. Garai oso konplikatuak bizi ditugu, eta are konplikatuagoak datoz. Politika inoiz baino beharrezkoagoa den garaian despolitizazioak eremua irabazten jarraitzen du herritarren artean, eta gero eta bahituagoa dago antipolitika egiten duten erakunde politikoetan. Azken hauteskunde kanpaina eta bere emaitzak horren ondorio eta kausa dira aldi berean.

Penko kolektiboaren aurrean, proposamen eraikitzaileak behar dira. Edo, fruitu berriak eman ditzan ahitutako lurrari su ematen zaion modu berean, legebiltzarra erretzen dugu –txantxa da, polizia-epaile jauna–. Edo tramitea ganoraz bete eta hauteskundeak errepikatzen ditugu 5 batekin bada ere (%50) azterketa gainditu arte –are txantxagoa da, herritar sufrikariokide–. Edo politika egiteko jarrera, espazio, modu eta bitarteko interesgarriagoak sortzen ditugu, nahi bada zaharkituokin elkarbizitzan hasiera batean –ez da txantxa, uneotan badirudien arren–. Bestela, politika deitzen dugun antipolitika gureak marmotaren eguna izaten jarraituko du eta, esaerak dioen bezala, marmoten erreinuan, Urkullu marmota errege. ●

IZQUIERDAWEB

MONARKIA EZ DA ONGI ETORRIA

EUSKAL HERRIA. Uztailaren 17an, Kataluniara jotzeko asmoa zuen Felipe VI.a erregeak, baina alderdi eta eragile sozial independentistek antolatutako protesten ondoren, jomuga aldatu eta Bilbora eta Gasteizera etorri zen, enpresariekin biltzera. Iñigo Urkullu lehendakariak lagundu zion egun osoan zehar. Euskal Herrian ere, dena den, txistu eta protesta artean hartu zuen hainbatek monarka. Irudian, Bilbon egin zioten ongietorria.

PESTIZIDAK

%34

Espainiako Estatuan komertzializatutako 2.711 elikagai aztertu ditu Ekologistak Martxanek, eta %34ak plagiziden arrastakoak ditu, tartean debekatutako substantziak. Frutak eta barazkiak bakarrik hartzen baditugu kontuan, %41,39ak ditu agrotoxikoak. Europar Batasuneko pestizida kontsumitzaile handiena da Espainiako Estatua.

Gasteizko Alde Zaharrean eraikin osoak apartamentu turistiko izatea baimendu dute

ARGIA

Orain arte behe solairuak soilik bilakatu zitezkeen ostatu turistiko. Gasteizko Udalak auzoko araudia aldatu du ordea, Arabatur Arabako Ostatu Turistikoen Elkartearen eskaerari erantzunez.

"BULTZADA EKONOMIKOA"

Alde Zaharreko Birgaitze Integraturako Plan Berezia (BIPB) moldatuko du Gorka Urtaranen udal gobernuak, eraikin osoak apartamentu turistiko bilakatzea ahalbidetuz. Arabatur elkarteak proposatu zuen ekimena, auzoak "bultzada sozial, ekonomiko eta komertziala" behar duela argudiatuta. "Erabilera turistikoko etxebizitzek basamortutzeari eta auzoaren degradazioari aurre egingo diote", dio Urtaranek.

BIZILAGUNAK HASERRE

Gasteiz Txiki alde zaharreko auzo elkartea oso kritiko agertu da neurriarekin. Hutsik dauden etxebizitzei erabilera soziala emateko udal ekimenak askotan eskatu dituzte, baina kontrakoa egin dela diote: oinarrizko beharra dena, merkatuaren eta turismo enpresen esku utzi.

COVID-19. Abuztuaren 1etik aurrera, Frantziako Estatuan maskara derrigorrezkoa izango da leku itxietan, eta sintomarik edo gomendio medikurik gabe ere, eskatzen duen herritar orori egingo zaio testa. Hala iragarri du Emmanuel Macron presidenteak.

INDEPENDENTISTA KATALANAK. Hirugarren graduko espetxe erregimena ezarri zaie Junqueras, Romeva, Turull, Rull, Forn, Bassa, Forcadell, Sanchez eta Cuixarti. Espetxeetako tratamendu batzordeek proposaturiko neurria onartu du Kataluniako Gobernuak.

ESPIOITZA. Kataluniako Parlamentuko president Roger Torrent Israelgo Pegasus espioi programaren jo-puntu izan da 2019an. Programa gobernuek soilik eros dezakete eta Torrentek Espainiako Gobernuari egotzi dio erasoa. CUPeko Anna Gabriel ere modu berean zelatatu zuten.

TURISMOAREN ZERO URTEA
GERTA OTE DAITEKE 2020 COVID-19AREN ERAGINEZ?

COVID-19 pandemiak lurrikara baten gisa astindu du turismoa, mundu osoko estatuek herritarrei bidaiatzea eragotziz estreina eta, ondoren, jendeei etxetik urrun mugitzeko gogoak hoztuz, beldurraren eta krisi ekonomikoaren poderioz. Azken urteotako bidaiatzeko sukarraren amaiera iragarri dute batzuek eta, aldiz, besteek uste dute industria bezala estatuak ahaleginduko direla jendea lehengo ohituretara bihur dadin.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Ekonomia osoaren osagai garrantzitsu batez ari gara: turismoari lotuta zeuden 2012an munduko zerbitzuen %30, esportazio guztien %6. 2008ko krisi ekonomikotik irteten ari zela, 2020an SARS-CoV-2 birus txiki bezain kutsakorrak kolpatu du bete-betean turismoa. Turismoaren Mundu Erakundeak maiatzean kalkulatu zuen aurten %20-%30 artean murriztuko direla nazioarteko bidaiak eta sektoreak galdu ditzakela 30.000-50.000 milioi dolar. Hori horrela bada kopuru globaletan, badira oporraldien negozioei estuago lotutako hiri eta eskualde asko %80-%90eko galerak nozitu ditzaketenak.

Ekonomia soziala, alternatibak eta trantsizioa lantzen dituen *Socialter* aldizkari frantsesak zenbaki berezia eman dio gaiari: "*Tourisme, Année Zero*" [Turismoa, zero urtea]. Dosierraren atariko editorialean dio: "COVID-19ak odolustuta utzi ditu nazioarteko turismotik bizi diren eskualdeak, hegaldien industria lurrari josita, Barne Produktu Gordina gruyère gazta baten gisa zulatuta... Zer iragartzen digu munduaren geldialdi honek? Gerta ote daiteke 2020a izatea turismoak beste norabide bat hartu zueneko Zero Urtea? Goiz da aurreikuspenik egiteko baina normalena litzateke diru-laguntza publikoz dopatutako abiatze berri baten aurrean egotea". Horixe da uste duena *Socialter*-en elkarrizketatu duten Philippe Bourdeau geografoak ere. COVID-19 krisiak, Bourdeaurentzako, lehen kolpe batean eraitsi du turismoaren hazkunde etengabean askok jarrita zeukaten fedea: itsututa industria hau ezin delako deslokalizatu (Balear Uharteak ezin dira lekutik mugitu...), ahaztua zuten lekuotara turistak eramatea zela baldintza. Epidemiak erakutsi du sektorea zein zaurgarria zen: "Espero genuen Txinatik turistak etortzea eta birusak iritsi zaizkigu: paradoxikoki turismoak lagundu du zabaltzen gero bera paralizatu duen gaixotasuna". Aldizkari berean Saskia Cousin turismoaren antropologian berezitutako irakasleak (baditu dozena erdi bat liburu gaiaz) azaltzen duenez, turismoa bere hirugarren iraultza betean zegoela harrapatu du koronabirusak.

Lehenbiziko iraultza XIX. mendean ezagutu zuen, garraiobide komunitarioak jaio zirenean, batik bat trena. Bidaien antolaketak orduan hartu zuen dimentsio ekonomikoa. Bigarren iraultza 1950. hamarkadan aireko garraiobideek eragin zuten, bidaiarientzako hegaldiek, eta turismoak jauzi egin zuen ordura arteko eredu artisanaletik eredu industrialera. Hor sortu zen mundu mailako turismo industria, nazioarteko hotel kateekin, formatu estandarreko gelekin, bidai agentziekin... Cousinen aburuz, hirugarren iraultza da gaur bizitzen ari garena, plataformen turismoarena: mundu mailako hotel eta hegaldi enpresetatik jauzi egin dugu turismoaren ekonomia osoa finantziarizatzera. Plataformek beren negozioa ondasun komunen gainean eraiki dute, merkatura eramanez orain arte ekonomiaren alorretik kanpo zegoena: paisaiak, etxebizitza, intimitatea, partekatzearen ideia, beste jendeak ezagutzea... –hau da, berez komertziala ez dena–. Airbnb bezalako plataformek aprobetxatzen dute jendeak turismoarekiko daukan arbuioa eta horren bidez etxe bat alokatzen duena ez da sentitzen ohiko hotel batera doana bezain "turista".

TURISTAK DENOK ETA INOR EZ

"Plataformek aldarrikatzen dute bidaiariari lekuko jendeekiko harremanak sendotzen laguntzen diotela –dio Cousinek–, baina errealitatean ondorioak alderantzizkoak dira. 2015ean analizatu genuen Airbnb-ren basea eta aurkitu genuen alokatzaileen %10 baino gutxiago zirela beren etxeko gela bat proposatzen zuten biztanle pribatuak. Kapitalismoaren aitzindaritzan ari dira plataformak: ondasunik eta enplegaturik eduki gabe, bitartekaritzatik eskuratzen dituzte etekinak, arrisku guztiak utziz haiengana jotzen duten etxe-jabeen edo enpresen gain. Plataformok hain daukate komunikazio ahalmen handia ezen eta etxeetako gelak alokatzeko sare tradizionalak [*chambre d'hôtes*, frantsesez] hondoa jo baitute".

Soberan legoke ARGIAren irakurlearri azaltzea zer nolako kritikak piztu diren bazter guztietan turistifikazioaren kontra. Alabaina, denok jarraitzen dugu turismoa egiten, batera edo bestera... sa-

BIRUSA ETA DIRUA. COVID-19AK ERAGINDAKO BELDURRAK ETA KRISI EKONOMIKOAK ERAGIN DUTE TURISMOAREN AURTENGO NAHASMENDUA. CHUDEACH SATITEN ARGAZKIAN, EMAKUME GAZTEA HUTSIK DAGOEN AIREPORTUAN BARRENA.

rritan amestuz egiten duguna turismoa ez baina beste zerbait dela.

Cousinek oroitarazi du Dean McCannell soziologoak jada 1970an azaldu zuela funtsean turismoa egin arren norberak bere buruari turista izatea ukatzearen fenomenoa. "Zu norabait mugitzen hasten zarenean, zuri harrera egiteko berehala antolatzen da hasieran artisautza eta ondoren industria. Orduan konturatzen zara dena antolatuta dagoela eta hori ez zaizu laket, zu bakarra sentitzen zarelako, bidegile bat. Orduan ohiko eszenatokiaren atzeko aldearen bila hasten zara, bazterretan begira, beti autentikotasunaren bila baina honek ihesi egiten dizula beti. Gero, ertz eta bazter horiek ere ezagunak bihurtzen direnean, are urrutirago joko duzu bilaketan. Gure turista estatusari ihes egin nahi izatea ahalegin postmoderno bat da, alferrikakoa eta harrokeriaz betea". Philippe Bourdeauk uste du herrialde aberatsetan *post-turismo* aroan sartuta gaudela. Hau da, hasieran oporretako bisitetan ezagutu diren turismo leku asko, kostaldekoak bezala mendialdekoak, bihurtu dira jende askorentzako ohiko bizileku; eskualdeok erretretara iritsitako jendeak erakartzen dituzte sarritan, baina baita oraindik lanean ari diren asko ere, bilatzen dutenak bizimodu edo bizileku hobea. "Orain 'bizimodu ona' –dio Bourdeauk– deitzen diogu etengabeko opor giro batean bizitzeari. Oporraldien ereduak hain emaitza onak eman ditu, ezen eta gaur egun turismoa alde guztietan ageri baita".

Eta 2020ko krisi honekin zer gertatuko da? Epe laburrean pentsa daiteke hurbileko bidaiak loraldi berri batean direla, pandemiak eraginda baina baita herritarrak sakelean jada nabaritu duen krisi ekonomikoak ere. 2008tik mugimenduak etxe inguruetara gehiago mugatzeko joera bazegoen, *krisi turismoa* aipatzeraino. COVID-19ak itzaliko ote digu urrutiago joateko gure irrika? Horra Bourdeauren erantzuna: "Egia da kilometro baten barruan konfinatuta egon zarenean exotismoa ager daitekeela etxetik 10 kilometrora ere. Baina *post-turismoa* aldarrikatzen duten pertsona bakanetatik harago, eszeptikoa naiz horrekiko, turismoaren industria eta estatuak jada zorrozten ari direlako lehengo bidetik segitu ahal izateko tresnak. Ikusiko dugu ea noraino iristeko prest dauden eredu industrial eta mundializatu honen sustapenean". ●

Maite Sánchez

BETIZUEN ZAINTZAILEA, EUROPAKO AZKEN BEHI BASATIAK

> BADIRUDI EMAKUMEOK BETI BEHAR DUGULA GIZON BAT ONDOAN BASERRITIK BIZI AHAL IZATEKO

Goizuetako mendietan Domiña baserrian bizi da Maite. Hara iritsi zen duela 20 urte bere seme-alabekin eta han hazten ditu betizuak. Hutsetik abiatuta nola eraiki dituen baserria eta bizitza kontatu digu.

REYES ILINTXETA DANI BLANCO

Zer egiten du zu bezalako kalekume batek baserri honetan?

Nik Errenteriakoa dut familia osoa eta han bizi izan nintzen 17 urterekin alde egin nuen arte, baina txikitatik nire asmoa beti izan da baserritarra izatea. Asko kostatu zait, baserriaren munduarekin batere harremanik ez nuelako. Txikitan, 4 edo 5 urterekin jada baserritarra izan nahi nuela esaten nuen. Gero Geriatriako laguntzailea eta Eguzki-teknikaria ikasketak egin nituen mundu hori ere gustatzen zaidalako.

Animaliekin lanean Aiako Harrian, Arditurrin hasi nintzen eta handik Oiartzunera joan nintzen bizitzera hona etorri arte. Baserri hau aurkitu nuen, ia eroria zegoena, eta nire lau haurrekin hemen bizitzea erabaki nuen. 1, 4, 6 eta 9 urte zuten orduan. Bat hil zitzaidan gero, baina hasieran laurekin etorri nintzen eta hemen hasi zen berriro nire bizitza. Oso zaila izan zen. Andre bat hona etorri, bakarrik, lau ume txikirekin... Integrazioa oso zaila izan da. Hemen ondokoa naiz eta denak euskaldunak gara, baina hala eta guztiz ere ez da erraza izan. Hona etorri ginen ezer gabe eta erruz kostatu zaigu gure tokia egitea. Orain pozik bizi gara.

Nolakoa izan zen hasiera hura?

Ahuntz batzuekin etorri nintzen eta nire ideia zen animaliak haztea. Hasieran ez zen posible izan eta handik eta hemendik ibili nintzen lanean, baina haurrak oso txikiak ziren eta erabaki nuen hemen bertan, baserrian, lan egitea. Gogorragoa zen, baina horrela seme-alabak ondoan edukitzeko aukera izan nuen behintzat. Orain alaba, bi semeak eta lau biloba dauzkat inguruan eta denak bizi gara baserritik. Indar, gazteena, eta biok Domiñan eta aldameneko bi baserritan besteak haien familiekin. Nire seme-alabak ni bezalakoak dira. Ohituta gaude lan asko egitera. Etxeak ere guk geuk zaharberritzen ditugu, geure eskuekin eta familiako guztion artean. Hemen ikusten duzun guztia, guk egina da.

Baina nola da posible denetik jakitea?

Ni lehenago etxe okupatu batean bizi izan naiz eta han guztia egiten genuen. Guk egiten ditugu mahaiak, altzariak, etxeko lurra... eguzki plakak jartzen ditugu eta orain dela gutxi semeek Domiñako teilatu osoa aldatu dute eta sukaldea guztiz berritu. Hau da gure filosofia: geuk dena egitea.

Maite Sánchez Hernández

ERRENTERIA, 1964

Betizu arrazako behi ekologikoekin lan egiten duen abeltzaina da. Duela 20 urte iritsi zen Goizuetako Domiña baserrira bere lau seme-alaba txikiekin. Baserria berregin zuen bere eskuez eta betizuak hasi zen hazten inguruko mendietan. Abeltzaintza ekologikoaren aldeko bere ahaleginarengatik 2017an Landa Eremuko Emakumeentzako Berrikuntzaren Bikaintasun Sari Nazionala jaso zuen Espainiako ministroaren eskuetatik. Gaur egun Garazi, Anxo eta Indar alaba-semeekin ari da bertan sutsuki lanean.

Ni familia apal batetik nator eta bizitza bilatzea tokatu zait. Hiriko jendeak ez dit batere inbidiarik ematen. Nork bere bidea hartzen du.

Zergatik jarri nahi zenituen betizuak?

Egia da hemen beste arraza bat haztea oso zaila dela, mendi hauek oso gogorrak eta pobreak direlako. Bertako animaliak nahi genituen kanpotik ekarritakoek asko sufritzen dutelako. Ekarri nuen lehen betizua hil egin zen berehala. Beste bat ekarri nuen Bizkaitik eta hura ere hil zen. Uztekotan egon nintzen abeltzain ona ez nintzela sinetsita, baina gero beste batzuk lortu nituen inguru hauetatik ekarritakoak, eta hauek bai atera zirela aurrera. Gainera nire alabak abeltzaintza eta albaitaritza ikasketak egin zituen eta haren laguntzarekin azkenean lortu dugu. Pixkanaka hasi ginen eta 20 urte hauetan ikasi eta hobetu dugu.

Zenbat buru duzue orain?

Amak kontatzen dira, behi ume-hazleak. Orain 46 ditugu. Urtean 13 edo 14 txekor saltzen ditugu. Anxo semeak orain beste ustiategi bat egin nahi du ardiekin eta betizu batzuk jartzeko asmoa du, beraz ale batzuk emango dizkiogu.

Horren berde eta eder eta mendi hauek pobreak direla diozu?

Bai. Hala da. Lur sailak hemen oso maldatsuak dira eta lurraren higadura oso handia. Hemen behiak libre ibiltzen dira neguan eta udan eta hilabete askotan bazka eman behar izaten diegu. Lur pobrea da eta gero eta gehiago. Klima aldaketak badu zerikusirik horretan ere. Haize handia ibiltzen da, edo eguzkiak bete betean jotzen du edota bat batean euri pila botatzen du eta ur horrek mineral guztiak eramaten ditu beheraka. Gero eta pobreago dago dena.

Mendiak ere garbitu behar dira eta horretan baserritarrak eta udala saiatzen gara. Zuk sartuko bazenu hemen beste behi arraza bat, abelgorria edo limousina, esate baterako, hilko lirateke. Hemengo belarrak ez du beste tokietakoak bezain beste bitamina.

Betizuak urte osoan daude mendian. Oso basatiak dira eta bizi behar dira aske, eta horregatik irailetik maiatzera arte bazka eramaten diegu. Belarra besterik ez. Betizuek ez dakite pentsua jaten. Egunero bi fardo jaten dute, denera 1.000 kilo belar. Lehen hiru hilabetez ematen genien belarra, baina orain urtean sei hilabetez eman behar diegu mendian gero eta gutxiago dagoelako.

Nondik ekartzen duzue belarra?

Gure soroetan ebakitzen dugunaz gain, kanpoan 80 bat tona erosten dugu urtean. Aurten gehiago. Ekologikoan lan egiten dugunez, kosta egin zaigu belarra aurkitzea eta urteak eta urteak egon gara Zaragozatik ekartzen hemen ez zegoelako. Orain Lekunberri ondoan hasi dira lantzen eta hemen erosten dugu. Azken urteotan gero eta jende gehiago ari da sartzen ekologikoan, baina orain arte oso prozesu luzea izan da.

> ***“Pozten naiz nire esperientziak balio badu neskak ahalduntzeko. Emakumeok potentzial handia dugu. Nik matxismoa pairatu dut baina ni ez naiz behin ere sentitu gizonetatik desberdin. Ez dago ezer nik ezin dudanik egin”***

Haragitarako saltzen dituzue betizuak?

Bai. Haragi paketeak eta hanburgesak saltzen ditugu eta orain hasi gara txorizoak egiten, dena Domiña markarekin. Ferietara joaten gara eta hainbat tokitako dendetara ere eramaten dugu haragia. Gure proiektua da haragia saltzea eta honetatik bizi nahi dugu.

Orain arte betizuak diru-laguntza asko jaso izan duenez, jende askotxok horregatik jarri izan ditu. Gure ideia, aldiz, ez da hori. Guk benetako baserritarrak bezala bizi nahi dugu. Gure filosofia ez da diru-laguntzen zain egotea, horiek guztiak merezi arren. Azken finean gu gara mendiak eta herriak bizirik mantentzen ditugunak. Errazagoa da pabilioi handi bat jartzea eta hor abereak haztea pentsua emanez. Gure egitekoa zailagoa da eta ingurua zaintzen laguntzen dugu. Gu gabe hau dena akabo.

Errentagarria da betizu haragia saltzea?

Guk ongi saltzen dugu. Denborarekin lortu dugu jendeak gu eta gure lana ezagutzea. Domiña ikusi eta badakite haragi naturala eta ekologikoa ari di-

rela jaten, kimikorik gabe, mendian aske bizi diren behiena. Orain Covid-19rekin ikusi dugu inoiz baino argiago nora doan mundua eta jende asko ohartu da zaindu egin behar ditugula lurra, ingurumena eta geure burua; prozesu horretan gaude gu. Honek bultzada bat eman digu.

Betizuak desagertzeko zorian daude?
Lehen bai, baina 1975etik hona INTIA nekazaritzaz eta abeltzaintzaz arduratzen den Nafarroako Gobernuari atxikitako sozietate publikoak, eta azken 13 urte hauetan ASBENA Nafarroako Betizu hazleen elkarteak eginiko lanari esker egoera aldatu da. 500 bat buru daude gaur egun Nafarroan, Euskal Herrian dauden %75. Gobernuaren laguntzarekin eta abeltzain ausart batzuen lanarekin lortu dugu hau dena.

Asko gustatu behar zaizu arraza hau, oso zaila delako animalia hauek maneiatzea eta gainera diru gutxi ateratzen duzu haragi gutxi ematen dutelako besteekin alderatuta. Hala ere, nik ez nuke aldatuko.

Zu bezalakoak direlako?
Bai, jendeak hala esaten du! Erronka handiko emakumea naiz. Hori egia da. Nik betizuengatik pasioa dut. Egunero mendira joaten naiz eta izugarri gustatzen zait ikustea nola dauden. Badaukate edertasun berezia. Basatiak eta azkarrak dira eta batzuetan toreatu egin behar dituzu pixka batean.

Erasokorrak dira?
Bai, baina gu ezagutzen gaituzte. Gu haien lagunak gara bazka ematen diegulako, baina hala ere estutu egiten badituzu oldartzen zaizkizu adarka eta joka. Jakin egin behar da. Nik hamalau urte daramatzat betizuekin eta oraindik egunero ikasten dut zerbait.

Goizuetako mendi hauetatik ez dute ihes egiten?
Animalia hauek ezin dira itxita eduki eta libre ibiltzen dira, baina Hernani, Berastegi edo Aranoko mugak bai daudela itxita. Mendian ibiltzen den jendeak badaki nolakoak diren eta ez dira hurbiltzen. Berez txekorrik ez badute ez dira jendearen bila joaten. Haien kumeak zaintzen dituzte, guztiok bezala, edo txakurrak ikusten badituzte izutzen dira, baina saldoan daudenean babestuta sentitzen dira. Jendeak orain ohitura du mendira joateko arropa koloredunarekin eta koloreak ikusten badituzte izutzen dira eta horregatik kontuz ibili behar da. 25-30 metroko distantzia gorde behar da beti, badaezpada ere. Modu berean saiatu behar da zaratarik ez egiten eta ez ikaratzen.

Behi hauek ikuskizunetarako erabiltzen dira?
Lehen bai. Esaten zuten horretarako erabiltzen zituztela gehienbat. Nik bi izan nituen bereziki arriskutsuak zirenak eta azkenean haragitarako eta txorizotarako eraman nituen hiltegira. Berez, gaur egun jaietan erabiltzen diren behi eta bigantxa horiek baino biziagoak dira. Amaiurren eta Baztanen ohikoa omen zen horretarako harrapatzea eta esaten dute Zugarramurdiko sorginek ere beren kobazuloak zaintzeko beti izaten zituztela betizuak inguruan. Oso istorio politak daude behi hauen inguruan.

Europako azken arraza basatia da?
Hala omen da. Beste arraza autoktono batzuk geratzen dira, eta genetikoki gordetzen dira, baina ez dira aske bizi beren

Azken hitza

BASERRIAN AHALDUNDU

Pertsonalki oso gogorra izan zen hona etortzea lau ume txikirekin, etxe erori batera eta batere laguntzarik gabe. Berriz jaioko banintz ez nuke egingo. Inork ez daki zer pasatu dudan. Eta ez dakit nola egin dudan. Andrea naiz eta kanpokoa. Hotza, miseria, bazterkeria eta matxismoa sufritu ditut, baina ez zait morboa gustatzen eta nahiago dut hori dena ahaztea. Ama, amona eta emakume baserritar bezala agertu nahi dut, besterik ez. Emakume zoragarri eta indartsu asko izan dira eta badira gure baserrietan. Agian ez dira beren istorioak ikusten baina hor daude. Ni ez naiz berezia.

Pozten naiz nire esperientziak balio badu neskak ahalduntzeko. Emakumeok potentzial handia dugu. Nik matxismoa pairatu dut baina ni ez naiz behin ere sentitu gizonengandik desberdin. Ez dago ezer nik ezin dudanik egin. Orokorrean tratua oso umiliagarria izan da. Semearekin motozerra baten bila joan, adibidez, eta semeari hitz egiten dio saltzaileak. Edo tratante bat etorri eta esaten dizun lehen gauza da senarrari esateko ateratzeko. Edo bileretan zure ahotsari kasurik ez egitea. Eta gertatu zait ere baten batek dirua eskaintzea gizon batekin joateko... Badirudi emakume baserritarrok beti izan behar dugula gizon bat ondoan honetatik bizi ahal izateko. Zorionez gauzak aldatzen ari dira. Orain belaunaldi bat oso ona dator. Gazteak desberdinak dira.

IÑAKIBEREZIARTUA
ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA

25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean
Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA

EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

habitat naturalean. Hau toki berezia da horretarako. Denborarekin nik uste dut Goizuetan baizik ez direla gelditukо.

Haragia nolakoa da?
Berezia da, baina ez dakit betizuarena delako edo belarra jaten dutelako. Biziagoa da, txuriagoa, txuletak eta azpizunak txikiagoak... oso goxoa.

Guk etxekoa baino, ez dugu beste haragirik jaten.

Gogorra da baserriko lana?
Guretzako gogorra dena hemendik ateratzea eta jendearekin egotea da. Berez egin gara oso bakarti eta isilak, edo itxiak. Nik uste dut hemengo gehienak halakoak garela. Hemen gehienak baserri txikiak dira eta gehienek dituzte beren animaliak eta baratzeak. Batzuk lanera joateko ateratzen dira, baina beti itzultzen dira. Goizueta horretarako berezia da.

Negua bai dela gogorra. Goizean goiz euritarako arropa jantzi, fuerte gosaldu eta egunero gertatzen diren arazoei aurre egin: gurpilak buztinean trabatu direla edo erremolkea irauli dela edo behi batek ihes egin duela. Berez gogorra da. Uda, aldiz, oso polita. Bestelako lanak egiten ditugu: itxiturak, makinaria eta traktoreak konpondu, bideak egokitu, lorategiak ondo paratu... lan politagoak. Gustatzen zaigu dena ondo edukitzea eta horregatik beti dugu lana.

Fisikoki oso nekagarria da?
Bai, baina lo egiteko arazorik ez dugu ezta gimnasiora joateko beharrik ere! Oso ongi jaten dugu gainera eta horregatik denok garena baino gazteago ematen dugu.

Zer moduzkoa dituzue interneteko konexioa eta telefono estaldura?
Txarra. Argia eta internet joaten dira eta kosta egiten zaie itzultzea... Eta estaldura gutxi izaten dugu. Mendiak oso itxiak dira eta oso gutxi gara. Enpresa handiek ez dute gure ondora etortzeko interesik. Azpiegituretan udalak zaintzen gaitu asko, baina landa eremuan, oro har, oso laguntza gutxi dago. 700 biztanle inguru gara eta denetik daukagu baina herria saiatzen delako: suhiltzaileak boluntarioak dira, medikua hemengoa da, denda dago hemengo jendeak jarria, auzolanak antolatzen ditugu eta zerbait gertatzen bada herriak erantzuten du, baina kanpoko laguntzarik ez dago.

Berrikuntzaren Bikaintasun sariak zer ekarri zizun?
Poza. Sariarengatik ez dut haragi gehiago saltzen eta ez zait bizimodua aldatu, baina pozten naiz beti lagundu eta animatu nauen jendearengatik. Saria haientzako eta guretzako domina bat izan da, baserria bezala. Maite dudan eta maite nauen jendearentzat oso polita izan da. Gurasoak, familia... hemen lagun asko ez daukat baina nire atzean beti izan da familia eta lagun sare sendoa eta horrek izugarri lagundu dit beti. Eta herriarentzat ere ona izango dela uste dut.

Nola ikusten duzu etorkizuna?
Orain artekoa baino hobea bai. Seme-alabak jada helduak dira, babestuagoa sentitzen naiz eta ikusten dut gauza berdinak gustatzen zaizkiela. Oso trebeak dira, egunero ari dira berritzen eta proiektu handiak ditugu buruan. Ilusio handia dugu. ●

Non dago, baina, zure garaipena

KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Hauteskundeak izan dira oraingoan Euskal Herriaren mendebalde honetan, eta horien ondoren gerta ohi denez, erabateko garaipen loriatsua (auto)aldarrikatzera abiatu da prestu irabazten lar ohituta dugun EAJ.

Luza dakioke gaur EAJri esaldi klasikoan egiten den galdera: Non dago zure garaipena? Hogeita hamasei urte daramatzazu mendebalde honetan gobernutik gobernura, (ia) beti agintean. Orain ere zeure komenientziara osatuko duzu gobernu zahar berritua. Baina galderak hor dirau: garaipena lortu duzu helburuak bete dituzulako? Ala, aldiz, helburuak aldatu dituzu garaipena lortzen jarraitu ahal izateko?

Berez da larria, mendebaldeko euskaldunontzat, guztion ontzia den honetan, zuen lemazain Urkullu gure portu zigortuetatik urrundu eta are mendebalderantz (Revillaren eremuetarantz) edota zentroko zurrunbilorantz (Sánchez eta enparauak) gure itsasontzi hau amiltzen ikustea. Hogeita hamasei urte gobernuburu izan, eta Euskal Herriaren alde hau beste aldeekin bat egin ordez, urruntzera daramazue beti, urrunago urtetik urtera.

Euskal Herria, nazio hautsi, hizkuntza galdu, kulturaz arroztu honetan, nazioa berregin eta batzeko ardatza euskara bera denean, zuek, aldiz, espainiera bihurtu duzue komunikazio-hizkuntza nagusi eta itogarri. Ikusi Euskal Irrati Telebista zuen eskuetan zertan ari den.

> Garaipena lortu duzu helburuak bete dituzulako? Ala, aldiz, helburuak aldatu dituzu garaipena lortzen jarraitu ahal izateko?

Mendebaleko Euskal Herri alde honen bilakaera Estatu espainiarra den erdipurdiko sasi-inperio monarkia zale horren sistema barrura eraman, eta bertan kokatzea da zuen grina eta eginbide nagusia. Independentzia, burujabetza, erabakitzeko eskubidea eta gainontzeko bide beregain guztiak baztertuz. Lan horretarako aliatu aproposak hartzen dituzue zuen gobernuetan, alajaina. Ondo dakizue norekin ezkondu eta nor baztertu, nori laguntza zintzoa eskaini eta nori engainua eta iruzurra egin, horretarako emandako hitza jan behar baduzue ere. Eta hori guztia, etika lezioak emateko plantak eginaz, gainera.

Zuen iritzian garaipen handia den eginbide horrek hamaikatxo kostu, higadura eta kalte dakar euskaldunontzat. Gizarte arrakala zabalagotu egiten duzue; kultur sormena eskale pobretuen eremu latz bihurtu; langile prestu eta trebeenen ordezkari eta sindikatuak, etengabe bazterreratu; herri-azpiegiturak, diru-zulo izugarri eta gure lurraren kalte-iturri amaigabea. Zuen gobernuen pean, ekologia langileekin batera lurperatzen duzue edota erraustegien bitartez kutsaduraren fabrika egin.

Azken hauteskunde hauen emaitzak begiratu eta bada juzgu oneko euskaldun bat baino gehiago pentsatu duenik: "Hara, ze aukera ederra oraingoa! Legebiltzarrean inoiz baino zabalagoa da abertzaleen eremua; EAJ eta EH Bildu elkartuta, hara ze bide ederra zabal daitekeen, azkenik, gure nazio demokratiko librearen eraikuntzan".

Ez da, baina, halakorik izango, zuen garaipen partikular horrek aurretik erabat baztertu duelako aukera hori. Ez duzue euskal nazioaren arkitektoak izateko inolako asmorik. Zergatik ote? Euskal Herriak ez duelako garaipen pribatuetarako lekurik eskaintzen. Librea izan behar duelako, aukera guztien joko demokratikoan irekia. Aurrera begira jarria, justizia sozialari, berdintasunari, hautu libreari emana. Eta halako baldintzatan, zuek beldur zarete zuen garaipen pribatibo hau hondatuko ote zaizuen. Hor ez zaretelako agian gobernu guztietako gobernari *senpiternoak* izango, txandako Estatu-agintari guztien babespean.

Zuen garaipena ez da, orduan, euskal herritarron garaipena. Ez era horretan. ●

Xuri gorri

ANTTON OLARIAGA

BEA SALABERRI
IRAKASLEA

Herriko bozak, diotenez, hauteskunderik itsusienak ohi dira. Urte osoa elkarren ondoan iragaten duten herritarren arteko tirriak agerian uzten dituztelako, baita, dudarik gabe, azpi jokoak. Denak haizu dira hauteskundeetan irabazle gertatzeko. Batzuek arrakastaz bete dute, eta besteek eztanda egin dute bidean. Nahasmen ederra sortuz.

Nahasmena ez da gaurkoa, segur. Dena hasi zen kontatu zigutelarik sistema barnetik aldatu behar zela. Laster, teknikari postuak zirenean administrazioan, ez omen genuen gehiago dudatu behar, hartu behar genituen. Zalantza genuelarik ea han ez zitzaigunez oztopo zenbait jarriko, ez gintuztenez uztarri pean atxikiko, ezkortzat gintuzten. Lanaldiak lortu zituzten zenbaitzuk. Pixka bat berantago, hasi ziren batzuk pentsatzen hauteskundeetan aliantzak egin behar zirela, konpromisoetara heldu, boterean egoteko eta ez oposizioan. Estrategia ona iritzi zitzaion. Artean, noski, armak utzi behar ziren, gero dena posible bihurtzen baitzen. Eta ondotik lurralde elkargo baten mentura izan zenean, ahoberoenek erreparazio historikoaren mailan jarri zuten, dena errazagoa eta hobea zekarrelakoan. Momentukoz, hitzemandakoaz urrun gara. Azkenik, kronologikoki, herrietako hauteskundeak izan dira. Eta hor, beste behin, batzuk ez dugu deus konprenitu.

Ez ditut herri guztietakoak segitu, bozkatzen dudan herri horretakoak baizik, Baionakoak, aski izan nituen, auzora begiratu gabe. Baionakoengatik, ez da lotsagarriak izan zirela, ez, urrundik ere, anitzez piesagoak izan ziren. Hor nahasi zirelako interes publiko eta pertsonalak, herriaren erronka eta Elkargoarena. Munduaren banaketa itxurak hartu zituen eta nork irabazi ala galdu azpitik jokatzen den kontua dela iradoki. Lehen itzulia baino asteak lehenago iragar zitekeen desastrea zetorrela. Orduan jadanik, hasiak baitziren bazter guztietatik euskaldun eta abertzale etiketak zituztenak kanpainak egiten abertzale ez zirenen alde, zela *Enbata*-ko zutabeetan, zela sare sozialetan, zela ostiral arratsetako aperitifetan. Eta ez ditut hemen aipatzen Etxeto, Berger edo Etxegarairen listan aurkeztu ziren abertzale supituki auto-proklamatu oportunistak. Aipatzen ditut euskalgintzako jendeak, preso ohiak, alderdi abertzaleen mahaietan egonak, Baionan bozkatzen ez dutenak, martxoan jadanik ahantzia zutenak zerrenda abertzale bat zegoela hautagai Baionan, mundua aldatzekotan zirenak Etxetorekin, Etxegarairen bilanak zuritzen zituztenak aho beteka, gizon profetiko moldean aurkeztu zituztenak. Hori guzia, ororen buru, ez deus aldatzeko. Sinesgaitza, berpiztu zen xurien eta gorrien garaia, kontzeptu arras depasatua zelakoan. Teorizatu zen anitz abertzaletasunaz, konpatibilitateaz, izan daitekeela abertzale, ezkertiar, eskuindar, nahi dena batera. Bi gaitzetatik zein zen mendreena esplikatzeko, hamaika zutabe.

Batzuek diote abertzalearen definizio zaharkitua dudala. Baliteke. Baina nondik defenda daiteke herri bat, ez bada menperatzen duenaren bestelako aldetik? Nola libra gaitezke ez bada isilarazten gaituen klasearen parean jarriz? Zergatik behar ote ditugu besarkatu besteenak diren proiektuak guhaurrenak eraiki ditzakegularik? Zertarako behar dugu hautatu betikoa ala betikoa mantentzea?

Berdin da jada. Amaitu da txanda. Mundua, karguak eta aulkiak banatu dira, nik zuri eta zuk niri, batzuk irri, besteek negar, bakoitza bere lekuan da berriz ere.

Ufa. Ez da ia deus aldatuko. ●

Zubieta 8

KOLDO ALDALUR
KAZETARIA

Orain hurrena gertatzen zen. Punta batetik bestera joateko Donostia bezalako "metropoli" izugarri batek derrigorrezko duen topoaren zulatze lanak heldu dira aberaskiloen etxepera. Zubieta 8 parean urak, ihesean, bere bidea topatu nahi eta zulokote ederra egin du. Lehenaz gain, egoera "danteskoa" bertan. Eta ondorioak ere, ikaragarriak. Pentsa, etxepe horretako bizilagunek bi egun oso eman behar izan omen dituzte hiriko lau izarreko hotel ziztrin batean. Kontxan ia murgilduta, musu truk jan eta edanez, izara irristakorretan jolastuz, sala dotorean bilerak eginez, bizitza zein gogorra izan daitekeen elkarri kontatuz eman dituzte kezkaz betetako orduak. Agian, herritarren artean diru bilketa egitea ere otu zitzaien, urruti ez zituzten denda dotoreetan aldatzeko behar zituzten arropak erosteko. Ez zuten egin. Han konfinaturik zeudenak ez daude eskatzen ohituak, exijitzen baizik.

Udal teknikariek azkenean etxera itzultzeko libre utzi zituztenean, hotelean deportatuta egon zenetako bat –erretreta garaira iritsitako gizonezkoa–, eta albistea jarraitzera bidali zuten kazetaria bildu ditu patuak.

–Nola ari zarete bizitzen egoera hau?

Itzulpen guztiek bidean zerbait uzten eta, sarri, moldatzen badute ere, hona desgrazia ikaragarri hark zartatutakoaren erantzuna hitzez hitz: "Oso kezkatuta gaude. Inoiz gertatu behar ez zuen egoeraren ondorioz gaude horrela, Txernobylen edo Auschwitzen antzera. Lurpeko tunel horiek turisten bisitaldiak egiteko erabili beharko lituzkete agintariek. Hau aberrazio hutsa da".

Zenbaki hutsetan murgiltzea errealitatea ezkutatzea izan ohi den arren, gogoratu behar da Poloniako Auschwitzen 1940ko maiatzetik 1945eko urtarrilera, behetik jota, milioi bat pertsona hil zituztela, gehienak juduak, homosexualak, elbarriak, ijitoak eta preso politikoak. Gertakariok aipatze soilak matrailak gorriarazi beharko lizkiguke.

Ukrainako Txernobylen, 1986ko apirilean izan zen istripuak –hau bai eufemismoa, "istripua"– 4.000 lagun hil zituen, eta ondorioak oraindik oso nabariak dira lur, ur, aire, baso eta, batik bat, bertakoen bihotzetan.

Okerrena ez da bi egun lau izarreko hotelean bizi behar izan zuen Zubieta 8ko bizilagun errukarriaren ezjakintasuna, intentzio txarra edo nahi duzuena. Ez, mintzen nauena da kazetariak bere editoreari babalore hark zer esan zion aurkeztu zionean, honek kortea informatiboetan sartu izana.

Jakin badakigun arren hitzak zentzuz kolorgeturik dabiltzala komunikabideetan, edozein astakeria zabal al daiteke? Hau adierazpen askatasuna al da? Non daude informazioaren eta desinformazioaren arteko mugak? ●

Heriotzaz

CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Ordenagailu aldaketa baliatu dut posta zerbitzuaren helbidetegia txukuntzeko. Kendu ditut galdutako lagun guztiak, egun haiekin harremanik ez dudalako edo, makurragoa dena, hil egin direlako. Bi obsesio handi ditut nik, bakardadea eta heriotza, eta nire arrenkura joandakoek utzitako hutsunea zedarritzen badute, hura handitzen dute agur esan ez izana. Baina orain arte ez naiz konturatu zeinen garrantzitsua den agur esan ahal izatea joaten direnei eta haien hurbilekoei. Krudela izan bada konfinamendua, horretan izan da.

Berreskuratuko ditugu lagunekin bertan behera utzitako hitzorduak, erosiko ditugu erosi gabeko arropa guztiak —ez badugu *on line* egin—, bidaiatuko dugu —hegazkinean— berriz; edo beharbada ez, gure bizitza ez da lehen bezalakoa izanen, baina heriotza bakardadean bizi behar izatea ez da nolanahi ahazten edo gainditzen den zerbait. Eta ez dakit konponbiderik ote duen. Horregatik etorri zait akordura nire herrian hildako bat gogoratzeko bizilagunek kalearen bestaldetik kantatutakoa etxekoei. Akorduan gordetzekoa. Xumea bezain ederra. ●

Normaltasun zaharra

ENEKO OLASAGASTI
ZINEMA ZUZENDARIA ETA EAB-KO LANGILEA

Ez dira inorentzat garai samurrak izan azken hilabeteak, ez eta Euskal Aktoreen Batasunean (EAB) lan egiten dugunontzat, are gehiago aktore beraientzat, baina batez ere gure lankide abokatuarentzat. Inoiz baino lan karga gehiagorekin ibili gara. Izan ere, aurretik generamatzan bazterkeriari ahanztura mingarriak gehitu izan behar baitizkiogu. ABEE delakoetatik kanpo gelditu baikinen.

Gure ofizioan lan egiten dugun egunetan bakarrik ematen zaigu alta Gizarte Segurantzan eta hori ezinbesteko baldintza zen ABEE batean sartu ahal izateko. Zer gertatzen da? Alarma egoera ezarri zenerako bai antzezlanak bai ikus-entzunezkoek euren jarduna etena zeukaten, beraz ia inork ez zuen altan egotearen baldintza betetzen, kontratua izan arren. Borroka latza izan da aktoreek, gainontzeko langileen antzera, eskubide hori zutela onartzea. Ez zuen inork garbi ikusten, ez konpainiak ez erakundeak ez aholkulari fiskalak ez administrazioak. Zenbat lan berriz ere, lanbide zahar honen bereizgarritasuna ulertzeko. Gurean lanbide bezala hain zaharra ez bada ere. Horrexegatik agian ulertezintasun asko eta asko. Egia osoa esan behar bada Kultura Saileko pertsona batzuk, kostata izan bazen ere, ulertu zuten eta horrek bere alde hitz egiten du. Eskerrak eman behar dizkiegu. Azkenean hainbat txosten onartu egin ziren. Baina gure abokatuaren egoskortasunagatik ez balitz aktore asko eta asko eskupekoen menpe egongo lirateke orain. Horixe izan baita gainontzean lortu dena bai Madrileko bai Gasteizko administrazioetatik. Eta guk ez ditugu eskupekoak nahi, gainontzeko langileek dituzten eskubide berak baizik.

> Kultura eta kulturgileak babesteaz ari gara, baina ez zerbait berezia bagina bezala baizik eta edozein langile eta lanbide motak dauzkan eskubide berak aitortuz, besterik ez

Eta honek pandemiaren aurreko errebindikazioetara garamatza. Agian batzuei ezaguna egingo zaizue Artistaren Estatutua delako bat bozkatu zela Espainiako Diputatuen Kongresuan, alderdi guztiek aho batez onartuta eta era berean guztiek ahaztu zutena. Estatutu horretan arestian azaldutako antzeko egoerei erantzun eta konponbide bat emateko pausoak eman behar zirela esaten zen. Europako beste herrialde batzuetan dagoeneko emanda daudenak. Azken batean kultura eta kulturgileak babesteaz ari gara, baina ez zerbait berezia bagina bezala baizik eta edozein langile eta lanbide motak dauzkan eskubide berdinak aitortuz, besterik ez.

Ez dakit zerbait irakatsiko digun bizitakoak. Ez naiz oso optimista. Batzuk normaltasun berrian murgiltzen diren bitartean gure arloan normaltasun zaharrera itzuliko garela uste dut. Lehengo lepotik burua, alegia. ●

bat Soziolinguistika aldizkaria

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

BAT 115 / HIZKUNTZA-KOMUNITATEAZ

MIKEL ZALBIDE > Hiztun-elkartea, azal eta mami.
ANDERE ORMAZABAL eta ZESAR MARTINEZ > Euskaltzaleen mugimendua eta Euskara elkarteen antolaketa mintzagai.
ZESAR MARTINEZ eta MAIALEN IÑARRA > Herritarren hizkuntza-aktibaziorako prozesu proposamena.
IGOR CALZADA > Gizarte Mugimenduen Rola Gizarte Berrikuntzan (GB): Euskaraldia, Panoptiko Digital Gisa.

GUREAN ATALA:
BEATRIZ ZABALONDO eta ASIER BASURTO > Praktika linguistikoak eta harremanak Euskal Herriko komunikazio publikoan.
ARTZAI GASPAR ARRAIZA > Euskara batuaren eta euskalkien inguruko jarrerak eta iritziak.

SOZIOLINGUISTIKAREN MUNDUKO LEIHOA
Liburu berri hautatuak soziolinguistikaz

harpidetu edo oparitu > URTEAN 40 euro
www.soziolinguistika.eus/bat/harpidetza / 943 592 556 / bat@soziolinguistika.eus

AZOKA 2020

EROSI INTERNETEKO ARGIAREN AZOKAN

azoka.argia.eus

ARGIA 943 37 15 45 azoka@argia.eus

OSASUN KRISIA

AITZAKIA PERFEKTUA EUSKARARI AIZKORAKADAK EMATEKO

Ikasle ugari martxotik irailera euskararekin ia harremanik izan gabe egongo da. Irakaskuntzako eragileek eta adituek ohartarazi dute udazkenean erne ibili beharko dela. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ez du denborarik galdu, eta pandemiaren izenean, murrizketak abiatu ditu hainbat programatan, beharrik handiena egongo den garaian. Ez dira euskarari sartutako guraize bakarrak. Behatokiak eta Kontseiluak osasun krisian, beste behin COVID-19aren izenean, hizkuntza eskubideak nola urratu diren salatu dute.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Behin-behineko etena izango da eta egoera konplexu hau gainditzean berreskuratuko dugu ikasleei eskaintzen zaien aukera hau". Hala zioen ikastetxeetako haurrak hartzen dituzten bost euskal girotze barnetegietako zuzendariek uztailaren 9an jasotako eskutitzak. Ane Larrinaga Ortiz de Luna Barriako barnetegiko zuzendaria da. Berak esan digu osasun krisiagatik hartutako segurtasun neurrien jakitun, langileak apirilean bertan hasi zirela alternatibak pentsatzen. Ikasleak lau egunez barnetegian eduki beharrean, irakasleak joango ziren ikastetxeetara. Ekainean Maite Alonso Hezkuntza sailburuordearekin egindako bileran esan zitzaien ezin zirela barnetegiak egin eta ezin zirela irakasleak ikastetxeetara joan. Aukera bakarra, egun bateko egonaldiak egitea. Azkenean, ezta hori ere, uztailaren 9ko idatziak dio programa osorik eten dela hurrengo ikasturterako. Bost barnetegi, hogei irakasle, urtean 140 ikastetxe eta 3.000 haur. Itxaron zerrendak zituzten eta seigarren barnetegia irekitzekotan ziren.

Barnetegiko haurrei 'soinsentipentsalariak' izaten irakasten diete: euskararekiko bizipen onak izatea lantzen dute, euskara maitatzeak erabilera errazago ekarriko duelakoan. Euskara gorputzean bizi, sentitu, eta ondoren norberarengan zer esan nahi duen miatu ahal izango dute. Ingurune erdaldun zein euskaldunetakoak joaten dira, batzuek agian euskarari

PROTESTAN. Euskal girotze barnetegietako eta Irale-ko langileek haien haserrea erakutsi zuten Hezkuntza Sailaren egoitzaren aurrean iragarri berri dituen murrizketengatik.

ARGAZKIA: ENDIKA PORTILLO / FOKU

dioten amorrua adierazteko baliatuko dute egonaldia, euskaraz bizi direnei berriz ahalduntzeko erremintak eskaintzen dizkiete.

COVID-19a programa eteteko aitzakia baino ez dela izan uste du Larrinagak: "Murrizketak egiteko aitzakia da. Udalekuak egingo dira, gizartearen onurak kontuan hartuta arauak ederki aldatu dituzte beste eremuetan". ETB3n haurrentzako saio berezia egin zen itxialdian eta Larrinagak parte hartu zuen: "Euskarak etxe guztietara heldu behar zuela esan ziguten orduan. Eta gero barnetegiak eta Irale eten? Telebista saioa zer zen, propagandarako?". Ez dute lanpostua galtzeko beldurrik. Funtzionarioak dira eta ikastetxeetara itzuliko dira. Barriako zuzendariak ez du ulertzen nola ez duten baliatuko urtetan pilatutako esperientzia: "Irailean eskolak itota egongo dira, beraiek [Hezkuntza Saila] esan izan digute gure programak merezi duela. Eraman gaitzazue ikastetxeetara ikasitakoa praktikan jartzera!".

IRALE-N 28 LANGILE GUTXIAGO

Irale programaren zutabeetako bat etengo da hurrengo ikasturtean. Hezkuntza Sailak jakinarazi duenez, irakasleek lanorduetan ezingo dute Iralera joan haien hizkuntza gaitasuna indartzeko ikastaroetara. Sailak *Berria* egunkariari adierazi dionez, irakasleen egonkortasuna ziurtatu nahi dute. Izan ere, lanorduetan Iralera joaten diren irakasleen lanpostuak ordezkoek betetzen dituzte.

Ekainaren 30eko ebazpenaren ara-

bera, funtzionarioak ez diren langileak zerbitzutik kanpo geratuko dira. 84 langiletik 28 geratu dira kanpoan. Langileak kexu dira murrizketak egiterakoan proportziorik ere ez dutelako kontuan hartu. Horretaz zerbait badaki duela gutxira arte Gasteizko irakastegiko zuzendari izan den Bernar Etxeberria Mendiak. Hamahiruko taldea zuzentzen zuen eta orain lau funtzionario baino ez dira gelditukо. Berak lanpostua uztea erabaki du: "Ez dakit badakiten zer egiten ari diren, nik uste dut ezetz. Ondo dabiltzan zerbitzuak desegiten ari dira, helbururik gabe, eta ez dira ari ezer eraikitzen".

ETORRI BERRIENTZAT ESKU GUTXIAGO

Ibai Redondo LAB sindikatuko Hezkuntza Politikako kidea da. Hainbat ikastetxek jakinarazi die hurrengo ikasturtean Hizkuntza Indartzeko Programako Irakasleen (HIPI) zerbitzuak murriztu dizkietela Hezkuntza Sailetik: langile gutxiago edo ordu gutxiago. HIPIek atzerritik etorri berriak diren haur eta gazteekin egiten dute lan. Ohiko ikasgelan edo ikasgelatik aterata, euskararen lehen urratsetan laguntzen diete. Bi urtez jaso dezake ikasle bakoitzak zerbitzua. Ibai Redondo aritua da lan horietan eta euskara irakasteaz gain, antolatuta ez dauden hainbat gauzari erantzuten saiatzen direla dio: "HIPIak eskolako erreferenteak gara haurrentzako, haien beharrak hizkuntzaz gaindikoak dira: jaioterritik alde egin dute, lagunartea galdu dute, batzuetan familia apurtu da bidaian, hizkuntza eta kultura berria bereganatu behar dituzte". Programa berrikusteko premia azpimarratu du, baliabide eta formakuntza oso gutxirekin ari direlako: "Bakoitzak ahal duena egiten du, programa txiki gelditzen ari da eta etorri berri kopurua urtero bikoizten da".

HIZKUNTZA ESKUBIDE URRAKETEK GORA BI HILABETEAN

205 kexa. Iaz baino %47 kexa gehiago jarri dituzte herritarrek Hizkuntz Eskubideen Behatokian. 69 eguneko lagina hartu du, Hego Euskal Herrian alarma egoera indarrean jarri zenetik ekainaren 1a arte. Erdiak baino gehiago, 115, erakunde publikoei ezarri dizkiete. Kexa kopuruaren gorakadaren arrazoi nagusia sinplea da: osasun larrialdia-

Iñigo Barruso
Hezkuntza Saileko euskara zerbitzuburu ohia

"Euskara zerbitzua helburuei erantzun ezinean dago"

Hezkuntza Sailak euskal girotze barnetegiak eta Irale programak irakasleei eskaintzen dizkien euskara ikastaroak etengo dituela iragarri eta egun batzuetara dimisioa eman du Iñigo Barrusok.

Zein garrantzi daukate Hezkuntza Sailak bertan behera utzitako bi programek?

EAEn, D ereduko ikasleen %35 oinarrizko mailan dago, horrek esan nahi du ez daukala nahikoa gaitasunik ikasketak euskaraz egiteko. Hezkuntzan arazo galanta da hori. Bestetik, irakasleen euskara maila funtsezkoa da. Batez ere ingurune erdaldunetan irakasleak ikasleen erreferente bakarrak dira euskarari dagokionez eta irakasleen maila, batzuetan, ez da egokia.

Horrek guztiak ekarri du D eredua leku batzuetan B eredua izatea. Hainbat tokitan irakasleek ikasleei gaztelaniaz egiten diete. Batzuetan irakasleek ez daukate nahikoa gaitasunik euskaraz aritzeko eta hori badaki Hezkuntza Sailak. Beste batzuetan ikasleek ez diete ulertzen irakasleei euskaraz ari direnean. Beraz, Iraleren egitekoa ezinbestekoa da irakasleen euskarazko prestakuntza sendotzeko.

Eta barnetegiak?

Egitasmo oso sendoa garatzea lortu dute urte luzetan. Lau egunetan hizkuntza ohiturak ez dira aldatzen, baina jarrerak aldatu daitezke. Emozioak eta jarrerak lantzen dituzte barnetegietan, urtero 3.000 haur pasatzen dira. Orain pitxerra apurtuta dago eta ez dakit be-

EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK. Urtean 3.000 haurrek izaten dute euskarara bizipen eta emozio positiboen bidez hurbiltzeko aukera. Argazkia: Euskal girotze barnetegiak.

ren ondorioz herritarrei mezu askoz gehiago helarazi zaie, informazio ugari jaso dute, eta horren ondorioz, erdaraz artatuak edo informatuak izan diren herritarren kopuruak gora egin du. Alegia, ez da ezer berririk gertatu. Pandemia baino lehen hizkuntza eskubideak urratzen ziren bezala, egoera berezian ere hala gertatu da.

Dena den, bestetan baino ageriagoan gelditu dira betiko hutsuneak: lanpostu publikoetan ez dago behar adina profesional euskaraz arreta bermatzeko, administrazioak gaztelaniaz funtzionatzen du eta herritarrentzako informazioa gaztelaniaz sortzen du, ondoren dator itzulpena. Alor sozioekonomikoan berriz, gaztelania eta ingelesa dira lan tresnak. Birusak erabaki asko azkar hartzera eta herritarrei informazio ugari ematera behartu ditu erakunde publikoak eta nabarmen geratu da egunerokoan zein den hizkuntza nagusia.

Agurne Gaubeka Behatokiko zuzendariaren eta Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiaren kezka nagusia, kexa kopurua baino, hizkuntza eskubideak errespetatu ez dituzten erakundeen erantzunak dira. Hala laburbildu daitezke: "informazioa berehala zabaldu behar zen"; "pandemia egoeran gaude"; "ez daukagu nahikoa profesional euskaldun". Beste erantzun mota bat izan da afixa euskaratzeko eskatu eta handik bi hilabetera egitea. Formazio saio asko eskaini da hilabeteotan eta horien inguruko kexak ere jaso dituzte Behatokian. Zergatik ez dituzte euskaraz eskaini? "Pertsona gehiagorengana iritsi" nahi zutelako. Beste erantzun bat: osasun alertaren ondorioz ekintza azkarrak egin behar ditugu. Udaltzaingoari, Ertzaintzari eta Foruzaingoari ezarritako kexetan erakundeek beraiek onartzen dute profesionalek zailtasunak dituztela zerbitzua euskaraz eskaintzeko.

EUSKALDUNEK EZIN ERANTZUN AZKARRA JASO?

Testuinguru bortitzean agerian geratu da hizkuntza eskubideak bermatzeko sistema eraginkorrik ez daukagula gaur egun. Hala uste du Bilbaok. Oso kezkatuta dago erakunde publikoek eman dituzten erantzunekin. Gizarte ongizatearen zutabe diren osasun arretak, segurtasun jarraibideek eta informazioak berebiziko garrantzia izan duten egunetan, mediku ona versus mediku euskalduna binomio maiztuaren beste bertsio bat atera dute: ekintza azkarra versus euskara. Hau da, presaka zebiltzan. Erantzun onartezina, Bilbaoren iritzirako: "Euskaraz ezin dugu erantzun azkarra jaso? Koronabirusaren txertoaren bila ari dira eta zer, bahetik pasa gabe jarduten dute? Beti jarri diguten aitzakia da ez dagoela mediku euskaldun nahikorik. Erantzun horrek ez gaitu asetzen, baina ehun mediku elebakar kontratatu badituzu ezin duzu zerbitzua euskaraz eskaini. Alabaina, informaziorako profesional euskaldunak badaude eta telebista publikoan gertatu dena ez da izan profesional euskaldunak falta direlako". Osasuna dago jokoan, esango dute erakundeek, "baina euskararen betaurrekoekin ez badugu irakurtzen ez dago osasunik, ez informaziorik, ez segurtasun jarraibiderik".

Euskaldunak elebidunak gara. Gai horri buruzko adierazpena egin zuen Marija Pejčinović Europako Kontseiluko idazkari nagusiak, hots jakina dela Europako

rreskuratu ahal izango den, ez da erraza izango. Izan ere, barnetegiak edozein tokitan jar daitezke, etxeak ez dira arazo, baina hor talde humano ikaragarria zegoen; esperientzia handikoak ziren, ekarpen handiak egindakoak, jende aktiboa. Bi funtsezko zutabe dira irakasleen euskarazko prestakuntza (Iralek baino ez du eskaintzen) eta euskal girotze barnetegiak.

Bi programa erorita nola geratzen da euskara zerbitzua?

Zerbitzuak lau hanka ditu: barnetegiak, 400 ikastetxe biltzen dituen Ulibarri programa, Irale, eta material didaktikoen hizkuntza kalitatea bermatzeko programa. Azken lan hori Iraleko irakasleek egiten dute. Lau hanketatik bi deseginda daude. Euskara zerbitzua oso herren gelditu da, momentu honetan dauzkan helburuei erantzun ezinean.

Nola uler daitezke horrelako erabakiak pandemia betean haur asko etxean euskararekin harreman oso gutxi dutela egon direnean?

Zuk esan duzu, martxo hasieratik irailera arte haur asko egongo dira euskararen erreferentzia oso gutxirekin. Baliabide gehien behar denean egin dituzte murrizketak. COVID-19a tarteko dela haurrak barnetegietara eramatea ez zaie egokia iruditu, baina guk kontraproposamena egin dugu eta ez dute onartu. Irakasleen kasuan arrazoi ekonomikoak argudiatu dituzte, irakasleak Iralera doazenean ordezkoak jarri behar dituztelako. Alternatiba proposatu genuen. Ikasleek euskara maila baxuena daukaten ikastetxeetara joateko prest ginen, irakasleei prestakuntza emateko ikasleekin irakurmena eta ahozkotasuna lan ditzaten. Hilabete hauetako galera gutxienez arintzeko. Ezezkoa eman digute eta langileen herena kalera joan da.

Atzo jaiotakoak ez gara eta espero nuen datorren urtean murrizketak egotea. Espero nuen esango zigutela, "aurrekontutik %10 kendu behar duzue, eta zuek erabaki zein diren lehentasunak". Baina sartu dira eta... murrizketak ezta uniformeki ere ez dituzte egin.

Kontseilua ETB-ren erantzunak kezkatuta

Agintari eta bestelakoen adierazpenak zuzenean gaztelaniaz eskaini dituztelako kexatu dira herritarrak. ETBtik erantzun digute agintariek gaztelaniaz egiten bazuten hala eskaintzen zituztela. Mezua lehenesten zutela erantzun digute. Esanak itzuli edo azpititulatu daitezke, eta hori ere ez zuten egin.

ETB1-i ez zaio lehentasunik eman, eta euskaldunon erreferente publiko bakarra da. Osasun krisian aukera ona izan dute erreferente bihurtzeko. Eskerrak herri ekimeneko euskarazko hedabideei, euskaldunok lehen mailako informazioa jaso dugu. Ez du balio esateak jendeak ez duela ETB1 ikusten. Kontua ez da ez dugula informazioa euskaraz nahi. Pandemian euskarazko hedabideetara jo dugu informazio bila, irakurle eta ikusentzule kopuruak gora egin du. Guri ez leporatu ETB1-en ikusle kopuru murritza".

Gai honen harira Berria-ko Ekhi Erremundegi kazetariak ondoko oharra egin zuen sare sozialetan EAEko hauteskundeei buruzko saioaz: "Euskal Hedabideek bi itzultzaile hartu genituen [Ipar Euskal Herriko] herriko bozak aztertzeko gaualdia euskara hutsean izatea bermatzeko. ETB1-en gaztelera hutsean ematen ari dira adierazpen gehienak... #tristea".

Amelia Barquín
Mondragon Unibertsitateko HUHEZIko irakaslea, kultur eta hizkuntza aniztasunean eta hezkuntzan aditua.

"Indartu beharko liratekeen bi programa desagertuko dira, nire harridurarako"

Etxean, eskolara joan gabe, ordenagailu bidez ikasketei jarraitu dieten haurrek euskararekin izan duten harreman ahulak kezkatzen du Barquín. Hilabeteotako hizkuntza arrakalaz gogoetatu beharra azpimarratu du.

Arrakala digitalak arrakala linguistikoa ezkutatu duela diozu.
Hezkuntza presentziala desagertzen denean euskararekin ukipena txikiagoa da. Eskolako denbora murrizten da, batzuek klase ez-presentzialak jasotzen dituzte tresna digitalen bidez, beste batzuek ez, baina beti izango da ordutegi askoz laburragoa. Familia erdaldunetako umeentzat eta inguru erdaldunetan bizi direnentzat eskola zen euskararekin ukipena eskaintzen zuen ingurune bakarra, eta beraz, galera linguistikoa agerikoa da. Baina batez ere desabantaila sozioekonomikoan daudenentzat. Agian, bestelako egoera sozioekonomiko batean bizi diren familien umeentzat beste balia-

estatuetako hizkuntza gutxituetako herritarrek estatu-hizkuntza ezagutzen dutela. Ez da ezagutze kontua, halako egoera gordinetan herritarrei hurbiltasuna eta lasaitasuna transmititzea baizik, "herritarrei informazioa natural iristea", dio Bilbaok.

JENDEA HILTZEN ETA ZUEK ZERBITZUA EUSKARAZ ESKATZEN!

Halako egoera berezietan herritarrek beldurra edo erreparoa izaten dute zerbitzua euskaraz eskatzeko, batez ere osasungintzan gertatu da oraingoan, baina pribatuak izanda oinarrizko zerbitzu dekretatu dituzten bestelako guneetan ere pasa da. Supermerkatua da adibide bat. Halako esaldiak entzun dituzte herritarrek euskarazko zerbitzua eskatu dutenean: "Horixe behar genuen, beste lanik ez daukagu eta zuek gisa honetara zatozte!". Bilbaori halako erreakzioak ez zaizkio batere harrigarriak iruditzen, halakoxe giroa sortu delako hizkuntza eskubideen inguruan, euskaldunen kapritxo balira bezala: "Gizarte berdinzalea lortzeko eskubide guztiak bermatzea beharrezkoa dela barneratuta izango bagenu denok, euskaraz ez dakienaren jarrera ere desberdina litzateke. Baina ez gaude egoera horretan, Eudelek, EAEko udalak biltzen dituen erakundeak berak, esan badu presa dagoela eta helburua informazioa helaraztea dela, zer ez dizu esango etxe azpiko harakinak?".

> *"Ondo dabiltzan zerbitzuak desegiten ari dira, helbururik gabe, eta ez dira ari ezer eraikitzen"*
>
> **Bernar Etxeberria**
> Gasteizko Iraleko zuzendari ohia

Kontseiluak alarma egoerak agerian utzi dituen gabeziei aurre egiteko urgentziazko neurriak proposatu ditu *Geroa euskaratik. Elkar hartuz, elkar zainduz* idatziaren bidez. Alorrez alor azaldu ditu gabeziak eta hartu beharreko neurriak. Bilbaok alor bat aipatu du bereziki: hezkuntza. Hezkuntza formalari dagokionean, Bilbaok ez du uste inor behar besteko garrantzia ematen ari zaionik, eta azterketa beharra duela uste du. Milaka eta milaka haur joango dira irailean eskolara azken hilabeteotan euskara usaindu gabe, "ez arnastu, baizik eta usaindu gabe". Ikasle belaunaldi berriak euskalduntzea gero eta gehiago kostatzen da, lanak dituzte

bide batzuk egon daitezke eskura, baina sarbide ekonomiko gutxiko familientzat, eta multzo horretan daude etorkinen seme-alabak, hori ez da gertatzen. Eta bi arrakalak gainjartzen dira, hein batean. Arrakala digitala pairatzen ari den umea arrakala linguistikoa ari da pairatzen.

Zer esan nahi duzu euskarak dentsitatea galdu duela diozunean?

Ordenagailuaren erabilerarekin dago lotuta. Ordenagailua, komunikazio kanal gisa, nahiko traketsa da, akats asko ditu eta zailagoa da euskaraz erraztasunik ez daukatenentzat. Gorputz hizkuntza desagertzen da testuingurua desagertzen delako, okerrago entzuten delako... Beraz, kontuan hartu behar da ea kanalak funtzionatzen duen.

Komunikazio mota horretan gorputza desagertzen da, nolabait esatearren. Irudia kalitate ez oso onekoa izan daiteke, ikasleek irakaslea ikusten dute baina agian irakasleak pantailan hogei leihatila ilun ditu, ikasleen kamerak piztu gabe daude. Gorputza desagertzearekin batera alderdi emozionala eta afektiboa murrizten dira.

Horrekin lotuta, tutoretzarekin eta bizikidetzarekin lotutako alderdiak desagertzen joan dira. Irakasleak eta ikasleak konektatuta dauden denbora labur horretan, eduki diziplinarrei eman zaie garrantzia, eta beraz, euskararen izaera akademikoa areagotu da. Ikasleen arteko harremanik ez dago, norabide bakarrekoa da komunikazioa, irakasleak ikasleei. Eduki diziplinarrek indarra hartzea euskarari ez datorkio ondo, badakigu.

Aurrera begira landu beharreko gaia al da?

Albo-ondorio bat da eta ez dakit jendeak horretan erreparatu duen. Urgentziari egin zaio aurre. Toki batzuetan mintzapraktika sareak antolatu dituzte, baina uda izan zitekeen momentu aproposa barnetegiak egiteko. Udal batzuk inplikatzen ari dira, eta euskal girotze barnetegiak dira, hain zuzen, momentu honetan bereziki garrantzitsuak. Barnetegiek emozioen eta bizipenen bidez euskarara hurbiltzen dituzte haurrak. Horixe behar dugu eduki akademikoetan jarri den indarrari kontrapisua egiteko. Gauza batzuk mingarriak dira. Nora ari dira begiratzen gure arduradunak? Zertan aurreztu nahi dute dirua?

Irale programan gauza bera, ez da bakarrik irakasleen hizkuntza prestakuntza hobetzea, haien trebakuntza pedagogikoa ere bai. Nire eta askoren harridurarako, indartu beharko liratekeen bi programa desagertuko dira. Ez dut ulertzen, inork ez du ulertzen.

EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK

adinaren arabera aurreikusitako euskara gaitasuna eskuratzen. Amelia Barquínekin bat etorriz, Bilbaok dio arrakala digitalaz hitz egin dela itxialdi garaian eta ez hizkuntza arrakalaz.

Dena ez da ordea, euskararen haize -kontra izan. Gaubekak eta Bilbaok aho batez adierazi dute komunitateak erakutsi duela testuinguru honetan elkar zaintzeko eta hartzeko joera, erantzukizunez jokatu dute. Herritarrek hizkuntza eskubideen urraketen berri eman dute eta horri esker kontuak eskatu ahal izan ditu Behatokiak. Gutxitan bada ere, erakundeek neurriak hartu dituzte. Euskarazko hedabideek eta kultur sortzaileek hilabete hauetan eskaini dutenagatik aitortza merezi dutela azpimarratu dute. Eta ez dauzkate ahazteko auzoz auzo eta herriz herri umeei euskaraz mintzatzen eta etxeko lanak egiten laguntzeko prest egon diren boluntario sareak. ●

BABESLETZA:

Lezoko Unibertsitateko Udala

UDAN EUSKARAZ Blai!

ARGIA 1919·2020

“Egungo arazo handienetakoa da jendeak ez dakiela triste egoten”

Lau herritarretik batek bizitzan zehar buruko gaitzen bat izango duela eta pandemiak ere hainbaten osasun mentalean arrastoa utziko duela dio Osasunaren Mundu Erakundeak. Urte eta erdiz depresioa eta antsietate nahasmendua jasan dituen eta klinikoki sendatuta lau hilabete daramatzan Malene San Pedrok lagundu digu buruko gaitzak hobeto ulertzen. “Txarto dagoenari ez esan pozik egoteko, errudun sentituko da eta gainera triste egon behar du”, dio 21 urteko orozkotarrak.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ SHUKARE OTERO

Datuek diote jende asko dagoela buruko gaitzen bat duena, baina inguruan badirudi ez direla hain ikusgarri. Ezkutuan mantendu ohi den zerbait da? Oso estigmatizatuta dago?

Estigma existitzen dela argi dago, baina pertsonalki pentsatzen dut norbere osasun mentalerako hobea dela oro har isilean mantentzea. Gizartea orokorrean ez dago prestatuta horrelako zerbait ulertzeko, jendeak ez daki zer esan ez nola esan, oso deserosoa da, eta gainera kalterako izan daiteke: hobeto egoteko zer egin behar duzun agintzen dizute, eta “horrek kalte egiten badizu, ez egin” esatea erraza da, baina egitea ez hainbeste; ez dute ulertzen zergatik ez duzun egiten esaten dizuten hori, hain erraz ikusten duten hori. Azkenean, karga gehigarri bat bihurtzen da zuretzako; egin ezin dezakezun zerbait eskatzen dizute (“atera zerbait hartzera”) eta erruduntasun sentimendua etengabea da, justifikatzen eta azalpenak ematen aritu behar duzu eta gainera haserretu egiten zaizkizu etxetik ez ateratzeagatik. Estigmarena ere hor dago: kontatzeak berak izugarrizko lotsa ematen zidan niri, “zoro nagoela pentsatuko dute”; eta jende batek hala pentsatzen du. Horregatik, nire ustez hobe da oso gertuko duzun bati edo biri baino ez kontatzea, eta profesionalen eskuetan jartzea. Prozesuan aurrera egin ahala, jende gehiagori kontatzen joan naiz.

Noiz eta nola erori zinen depresioan?

Urte eta erdi eman dut diagnostikatuta eta makina bat faktorek eragindako depresioa izan da; ez nintzen gauza izan horiek gestionatzeko eta gurpil batean sartu nintzen. Txarto jartzen hasi nintzen, txarto nengoela jakin barik, onartu barik. Ezin nuen lorik egin, edo loaren paralisia nuen (bat-batean esnatu eta ezin mugitzea), arazorik txikiena erraldoi bihurtzen zen, bost eskailera igota neka-neka eginda nengoen, ohean negar egiten egoten nintzen, ezinezkoa zitzaidan ikasketetan kontzentratzea... eta konturatu nintzen zerbait ez zihoala ongi. Pentsa, depresioaren ondorioz bat-batean 18 kilo argaldu nituen. Gurasoen dibortzioaren ostean ezagutu nuen psikologoarenera itzuli nintzen, terapia egitera, baina ez zen nahikoa izan, eta psikiatrarekin uztartu nuen,

> “Egin ezin dezakezun zerbait eskatzen dizute ingurukoek ('atera zerbait hartzera') eta erruduntasun sentimendua etengabea da. Eta haserretu egiten zaizkizu etxetik ez ateratzeagatik”

> “Lehen panikoa nion triste egoteari, txarto egoteari, eta hori ez gertatzeko arazoak saihesten nituen, ez nuen gatazkarik nahi, eta botere harreman desorekatuak sortu nituen”

antidepresiboak behar nituelako. Biek egin didate on eta biak izan dira gako prozesuan. Hasieran medikatzearen kontrakoa nintzen erabat, baina gero ulertu nuen bizitza normala eraman nahi banuen medikatu beharra neukala. Egun bakarrean bost antsietate-atake izan nitzakeen.

Entzuten dituzunean "triste egotea jarrera kontua da, aldatu jarrera" gisako esaldiak, zer pentsatzen duzu? Kalte handia egin dezakeen pentsamoldea al da?

Bai, Mister Wonderful eta gisakoak oso modan daude, eta oso toxikoak dira. Txarto dagoenari esaten badiozu pozik egoteko, ez da bakarrik ez diozula laguntzen, gainera errudun sentituko da. Ez esan pozik egoteko, triste egon behar du. Mezu horiek ez diote bakarrik depresioa duenari kalte egiten, denei baizik. Niri esaten zidaten: “Garrantzi gehiago eman pozik zauden egun horiei”, eta ez da hala egin behar, baina egungo gizartearen arazo handienetakoa da jendeak ez dakiela triste egoten. Nire prozesuan egin behar izan nuen lehenengo gauza izan zen triste egoten jakin, zergatik nengoen triste ulertu, min hori onartu eta dolua pasa. Arazoa estali eta pozik egoten tematzen bagara, arazoak hor jarraituko du, barnean.

Nik ere ez dut triste egon nahi, baina tristezia eta sufrimendua ohikoak dira gure bizitzan, eta onartu egin behar ditugu, ongi egon ahal izateko. Denok ditugu arazoak, baina zoriontasunaren diktaduran bizi garenez, zoriontasun faltsuak betetzen ditu sare sozialak. Eskolan heziketa emozionala gehiago landu beharko litzateke, onartu behar dugulako ezin dela uneoro pozik egon.

Lehen panikoa nion triste egoteari, txarto egoteari, eta hori ez gertatzeko arazoak saihesten nituen. Inguruko jendearekin haserretzeak triste sentiaraziko zidanez, ez nuen gatazkarik nahi, eta botere harreman desorekatuak sortu nituen: denak zeuden nire gainetik, pertsona bezala hutsaren hurrengoa nintzen, eta horregatik nengoen hain txarto. Ulertu behar izan dut norbait nirekin haserretu daitekeela eta ez dela ezer gertatzen. Horregatik diot oso toxikoak direla poztasuna inposatu nahi duten mezuak, pertsona bat eraman dezaketelako okerrago egotera.

Lanean, lagunartean... justifikatu behar izaten du depresioa edo antsietatea duenak. Zuri halakorik gertatu al zaizu?

Etengabe justifikatu behar izan dut nire burua, denerako eta egoera guztietan. Eta segituan antzematen duzu

zeinek lagundu nahi zaituen baina ez daki nola, eta zeinek ez duen enpatiarik eta iruditzen zaion gertatzen zaizuna tontakeria dela. Prozesuaren hasieran gezur asko esan behar izan ditut, eta jendeak depresioaren berri izan duenean, aipatu duguna gertatu da, askok ez duela ulertu. Hainbatek uste du depresioa dela triste egotea, eta ez da hori bakarrik. Nire kasuan, tristuratik baino gehiago zuen ezinegonetik, urduri nengoen egun osoan, nire bihotz-taupadak indar handiz entzuten nituen, Bilbotik ibiltzen nindoalarik uste nuen eraikinak gainera eroriko zitzaizkidala. Mundua aldatu egiten da, oso arraroa da. Oraindik ez naiz gauza ongi azaltzeko zelan sentitzen nintzen momentu horretan, ziurrenik oraindik ez dudalako guztiz onartu.

Bitxia da, 18 kilo argaldu nituen eta jendeak esaten zidan zeinen eder nengoen. Baina zer arraio?! Nire gaixotasuna txalotzen ari ziren eta hori niretzat suntsitzailea zen.

Norbere buruko arazoekin nahikoa ez, eta besteekiko harremana ere tentuz kudeatu behar.

Ni etxean sartuta egon nintzen behar izan nuen denbora guztia, ulertzeko zer zen gertatzen zena. Behin ulertuta zer gertatzen den, zer egin behar duzun horri aurre egiteko eta nola kontrolatu, hasi zaitezke besteekiko harremana lantzen. Nire kasuan pautak idazten nituen egunero, adibidez "gaur ez naiz justifikatuko" eta halakoak, guztiz robotizatuta, nire burua behartzeko. Pixkanaka ikasten joan nintzen.

Gauza asko galdu al dituzu prozesu honetan? Eta ikasi?

Bizpahiru lagun galdu ditut bidean, ez nuelako egiten haiek esaten zidatena. Haserretzen ginen eta oso txarto pasatzen nuen, eta momentu batean harreman horiek moztu egin behar izan nituen. Hemendik ateratzeko eta nire buruan gertatzen ari zena ulertzeko egin behar nuen zerbait izan zen. Urte akademiko oso bat galdu dut baita ere, eta beste aukera eta esperientzia ugari (batez ere ezin nuelako etxetik irten).

Aldi berean, pila bat ikasi dut: nire adimen emozionala asko garatu dut eta arazoak erlatibizatzen ikasi dut, arazo txikiak minimizatuz eta handiekiko sentsibilizatuz. Jendea ez epaitzen eta jendeari buruzko komentariorik ez egiten ere ikasi dut, niri egiten zizkidatelako eta min handia egiten zidatelako. 2.400 biztanleko herri batean bizi naiz, mundu guztiak zekien hiru-lau hilabete neramala etxetik atera gabe...

Zer izan da zailena?

Nire kasuan, zailena izan da onartzea ez naizela honengatik hilko. Arraroa dirudi, baina nik pentsatzen nuen hil egingo nintzela, eta denbora asko pasa zen onartu nuen arte ez zela hala. Aurrerapauso handia izan zen. Gaixo zaudenean pentsamendu oso arriskutsuak dituzu eta ni ez naiz izan autolesionatzen den horietakoa, baina gaitzak fisikoki minduko ninduela eta hil egingo zidala uste nuen. Bihotz-taupadak entzun eta bihotzekoak emango zidala pentsatzen nuen, adibidez. Horregatik diot jendeak ez duela ulertzen; nik lagun bati ezin nion esan "hil egingo naiz".

Sendatuta zaude...

Lau hilabete daramatzat antidepresiborik hartu gabe eta klinikoki sendatuta nago, baina terapiara joaten jarraitzen dut eta etorkizunean ere ez diodala joateari utziko argi daukat. Terapia funtsezkoa da niretzat eta egunerokoa gestionatzen lagundu dit, tresnak eman dizkit.

Psikiatrak azaldu zidan klinikoki sendatuta nagoela garunean dugun serotonina (eta nik desorekatua nuena) jada orekatuta dudalako eta beraz antidepresiboak utzi ditut, baina erortzeko arriskua eta erortzeko beldurra hor dago beti. Zaila da horrekin bizitzea, baina era berean prozesu honetan asko ikasi dut, badakit ze gauzek eraman nauten horrela egotera eta nola gestionatu ditzakedan.

Nire psikologoak dioen moduan, pertsona batzuek aukera handiagoak ditugu depresioan jausteko, beste batzuek baino. Enpatiarik ez duten pertsonek aukera gutxiago dute halako gaitzen bat garatzeko, errazagoa da depresioan erortzea sentsibilitate handia dugunontzat. Hain naiz sentsiblea, ikusten nuenean norbaitek ez zuela elkartasunez edo zuzen jokatzen, sekulako antsietatea sortzen zidala. Ikasi dut besteen erabakiek ez nazaten hainbeste eragin eta kaltetu.

> "Bitxia da, 18 kilo argaldu nituen eta jendeak esaten zidan zeinen eder nengoen. Nire gaixotasuna txalotzen ari ziren eta hori niretzat suntsitzailea zen"

> "Enpatiarik ez duten pertsonek aukera gutxiago dute halako gaitzen bat garatzeko, errazagoa da depresioan erortzea sentsibilitate handia dugunontzat"

Gaztea zara. Irakurri dut belaunaldi gazteen artean ugaritu egin dela buruko gaitzen kopurua. Egungo gizarte ereduak eragiten duela uste duzu?

Nire adineko pertsona nahikotxo ezagutzen dut antzeko egoera igaro dutenak edo igarotzen ari direnak, ez da normala. Sistemak jartzen digun presioa, daramagun erritmoa oso handia dela uste dut, eta jendeak maiz bere buruari baino ez diola begiratzen; nik hori klasean nabaritu dut, humanitate falta hori, eta Zuzenbidea ikasten ari naiz, hain juxtu Zuzenbidea ikastea besteei laguntzeko nahiari lotuta dagoela ulertzen dudanean.

Depresioan erortzen denari zein aholku emango zenioke?

Hasteko, onartzea. Ez da erraza, baina pauso hori eman beharra dago. Eta esango nioke ez dela ezer gertatzen laguntza profesionala eskatzeagatik. Depresioan dagoen eta laguntzarik eskatzen ez duen jende asko dago, eta hori ez da batere ona. ●

HERNIOKO SAROBEAK

Mendian hiru solairu, hiru jarduera ekonomiko

Laborantzak, basogintzak eta abeltzaintzak guztiz eraldatu dute Hernioko ekosistema. Mendian gora goazela, hiru solairutan aurkituko ditugu sarobeak, eta artxibo historikoetako erregistroei zein egungo lurrazalaren erabilerei behatuz, informazio ugari lortu dezakegu mendetan egin den mendiaren erabileraren inguruan. Eta egun? Mendiak ez ote zaizkigu kontenplazio hutserako ondare bihurtu hiritarroi?

JOSU NARBARTE HERNANDEZ

Hezurtzako sarobea, Zelatungo lepotik hurbil. Harrizko hormaz mugatutako itxitura zirkularra, artzain-borda eta mugak indartzeko elorri beltzak ikus daitezke, baita itzala eta abereentzako bazka diren kimuak emateko landu diren pago lepatuak ere.

Hernio mendilerroa Gipuzkoaren bihotzean dago, Oria eta Urola haranen artean. Natura 2000 Sarearen baitan, Kontserbazio Bereziko Eremu gisa defindituta dago; Hernio (1078 m) eta Gazume (1001 m) tontorrekin, mugarri garrantzitsua eratzen du inguruko komunitateen paisaia sinbolikoan. Euskal Herriko Unibertsitateko Ondare eta Paisaia Kulturalen ikerketa-taldeak Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin 2018an egindako proiektuaren bidez, iraganeko jarduera eta ustiapen anitzen arrasto materialak dokumentatu ahal izan dira.

Zestoako Udal Artxiboko erregistroek erakusten dutenez, udalerri honek eta Errezilek hamazazpi saroberen jabetza partekatu zuten Erdi Arotik XX. mendera, Hernioko hainbat puntutan. Sarobeak mendian mugarritutako lursailak dira, normalean biribilak, sarbide- eta erabilera-arau bereizgarriekin. Hasieran abeltzaintzarako espazioak izan zirela dirudi, baina haien funtzioak aldatzen joan ziren denboran zehar. Egun ere aise identifika daitezke, toponimiari eta lursailen forma zirkular edo sasi-zirkularrari esker. Artxiboko erregistroak oinarri hartuta, sarobe hauetan iraganeko praktika ugariren aztarnak identifika daitezke. Batzuk gizakiak eraikitako egiturak dira: bideak, bordak, hormak, lubakiak eta abar. Beste batzuk, ordea, ez dira hain agerikoak; abeltzaintzak eta basogintzak jatorrizko ekosistemetan eragindako aldaketekin lotuta daude. Multzo honetan aipa daitezke, bereziki, "bio-markagailu" deritzenak, hots, gizakiak lagunduta hazi eta ugaldu diren landareak: landatutako frutarbolak, abereen bazkak zein suaren erabilerak epe luzean eraldatutako belardiak, lepatutako edo kimatutako zuhaitzak, mugarri gisa erabiltzen diren zuhaixkak, eta abar.

Alabaina, praktika hauek guztiak ez dira neurri berean islatzen Hernioko sarobe guztietan. Haien kokapenari erreparatuta, sarobeak hiru multzotan sailka daitezke, eta bakoitzean jarduera-multzo jakin bat nagusitu da. Ondorioz, Hernioko mendi-paisaia ere hiru "solairu ekologikotan" antolatuta dagoela esan daiteke, bakoitza bere ezaugarri eta bilakaerarekin.

SAROBE ZIRENAK BASERRI

Lehen solairua 500 metro azpitik kokatutako sarobeek osatzen dute. Gaur egun, espazio hauetan baserriak daude; funtzio-aldaketa hau Aro Modernoan gertatu zen, herri-lurrak pribatizatzeko joera orokorraren baitan. Hala, 1452an jada aipatzen da Errezilgo Udalak Joan Goenaga auzoari utzia ziola Artaunsoroko sarobearen erdia, bertan laboreak egin zitzan. Bai Artaunsoro eta bai alboko Barrensoro 1503an saldu zizkioten, osorik, Joan Perez Idiakaitzi, eta 1562rako zarauztarren leinuaren esku ageri dira, baserri bilakatuta. Antxiturbiko eta Etumetako sarobeak ere nahiko goiz pribatizatu zirela dirudi, 1512rako ez baitira agertzen sarobe komunen zerrendan. Etumetan XVI. mendeaz geroztik benta bat egon zela badakigun arren, baserriaren aipamen zaharrena 1613koa da. Garai horretan, Errezilgo Udala zen eraikinaren jabea.

> Zestoak eta Errezilek hamazazpi saroberen jabetza partekatu zuten Erdi Arotik XX. mendera, Hernioko hainbat puntutan

Ezkurroaren bilakaera hobeto dokumentatuta dago. 1636an, zenbait bizilagunek eskaera egin zioten Zestoako Udalari, baserriak eraiki eta lur berriak landu ahal izateko. Domingo Arretxe alkateak proposatuta, Ezkurroako sarobea hautatu zuten horretarako; baina Errezilek helegitea aurkeztu zuen, Etumetatik hurbilegi egonik kalte egiten ziolako. Azkenean, Korrejidoreak 1655ean baimendu zuen Ezkurroako baserria eraikitzea. 1712tik aurrera, udalaren kontu-liburuetan jasota dago bertako maizterrek ordaintzen zuten errenta. Azkenik, Erdoizta baserriaren fatxadan honako inskripzioa irakur daiteke: "AÑO 1715/1851", eraikuntza eta birmoldatze datak ziur aski.

Abeltzaintza-erabilera kolektibotik nekazal ustiategi pribaturako bilakaera, beraz, Aro Modernoan eman zen sarobe hauetan. Baserri berriak laborari-familiek eraiki eta okupatu zituzten, zenbait kasutan tokiko udal erakundeen babes eta, batzuetan, sustapenarekin. Prozesu honek errotik aldatu zuen Hernioko mendi-paisaia: nekazaritza-esparrua antzinako basoetan zabaltzen zihoan heinean, ordura arte indarrean egondako kudeaketa-eredu kolektiboak ahultzen joan ziren, etxe-eskalan oinarritutako eredu atomizatu baten mesedetan.

PINUAREN LURRALDEA?

Bigarren solairua 500 eta 700 metro bitartean kokatutako sarobeek osatzen dute. Altitude eta erliebe aldetik, eremu hauek ez dira aproposak baserriak ezartzeko, eta sarobe hauetan abeltzaintza eta basogintza nagusitu ziren XIX. mendearen hasiera arte, bereziki haritzez (*Quercus robur*), gaztainondoz (*Castanea sativa*) eta pagoz (*Fagus sylvatica*) osatutako estaldura begetalekin. Gipuzkoako mendi-lur komunal gehienak bezala, sarobe hauek 1808 eta 1814 artean saldu zizkieten hainbat partikularri, Espainiako Independentzia Gerrak eragindako txikizio eta zorrei aurre egiteko.

Une horretatik aurrera, hazkunde azkarreko espezieen monolaborantza gero eta hedadura handiagoa hartzen joan zen, baserri tradizionalaren oinarri ekonomikoa ordezkatu eta papergintza modernoaren beharrei erantzuteko. Ezagunena intsinis pinua da (*Pinus radiata*), baina beste hainbat ere sartu dira, hala nola pinu larizioa (*Pinus nigra*), Douglas izeia (*Pseudotsuga menziesii*) edo haritz amerikarra (*Quercus rubra*). Gaur egun, Komisolatza, Sagarain eta Belaunburuko sarobeek larre abandonatuz, sasiz, otez eta txilarrez osatutako estaldura begetala daukate. Gallekun eta Legarralden, aldiz, berriki arte intsinis pinuz osatutako plantazioa izan da nagusi. Antzinako erabileren arrasto batzuk kontserbatzen dira (borda zaharrak, harrizko hormaz itxitako hespilak eta pago-motzak, adibidez); baina, hala ere, bi mendeko baso-ustiaketa intentsiboak eragindako higadura nabarmena da inguru osoan.

Gainera, 2016az geroztik banda marroiaren izurriak gogor kolpatu ditu intsinis pinuz osatutako plantazioak. Krisia oso nabarmena izan da Hernioren magaletan, konifero-hedadura zabalak guztiz narriatuta gelditu baitira denbora gutxian. Egoerari aurre egiteko, mendilerroaren alde askotan mozketa masiboak egin dituzte, makineria astuna sartuta eta hainbat hektarea estaldura begetalik gabe utzita. Horren ondotik, herritar ugariren baitan kezka piztu da, intsinis pinuaren ordez hazkunde azkarreko beste espezie batzuk, eta bereziki

TOLOSALDEA.EUS

eukaliptoa (*Eucalyptus spp.*), hartzen ari diren protagonismoa ikusita.

MENDI GAINETAN ABELTZAINTZA BIZIRIK

Hirugarren solairua goi-mendiko bazka-guneetan kokatutako sarobeek osatzen dute, 700 metrotik goiti. Aurreko multzoan bezala, sarobe hauek 1808 eta 1814 artean pribatizatu ziren baina, beren altitudea eta ezaugarri topografikoak kontutan hartuta, ezin izan dira bertan konifero-plantazioak hedatu eta haien erabilera nagusia artzaintza izan da azken berrehun urteetan ere.

Ondorioz, inguru honetan kontserbatu da egoera onenean Hernioko mendi-paisaia kulturala. Hezurtza, Elkamen, Zelatun, Zezenarriaga eta Gazumeko sarobeek beren egitura zirkularra mantendu dute. Egun hespil gisa erabiltzen dira; harrizko hormaz itxita daude eta haien mugak bio-markagailuz indartuta ageri dira, elorri zuriz (*Crataegus monogyna*) eta elorri beltzez (*Prunus spinosa*) bereziki. Horrez gain, abereak gordetzeko eta artzainak babesteko bordak ere badaude, eta zenbait puntutan lepatutako pagoak ikus daitezke.

Abeltzaintza jarduerak gutxienez seiehun urtez mantendu dira, beraz, inguru honetan. Hala ere, horrek ez du esan nahi paisaia aldagaitz mantendu denik, giza jarduerekin batera etengabe bilakatu dela baizik. Adibidez, 1452ko agiri batek aipatzen du Elkamengo sarobean ganaduak bazkatu ez ezik, errezildarrek egurra mozten zutela haien etxeak hornitzeko. Alabaina, zuhaitzak urriak dira gaur egun inguru horretan; hegoaldera begira dauden magal lakarretan soilik topa daitezke zenbait pago-motz, borda eta hespilekin tartekatuta. Honen arrazoia XVIII. mendeko abeltzaintza-ereduaren aldaketa izan daiteke; arbolen hostoz eta ezkurrez elikatzen ziren urdeen eta behien ordez ardi belarjaleak ugaritzen hasi zirenean, mendiaren gaineko presioa handitu egingo zen, basoen hedadura murriztuz eta haien tokian belazeak hedatuz.

> Sarobeen funtzioa Aro Modernoan aldatu zen: abeltzaintza-erabilera kolektibotik nekazal ustiategi pribatu izatera pasatu ziren

ORAIN BAZTERREAN

Hernioko sarobeen kasuak argi erakusten du mendi-paisaiak Euskal Herriko landa-komunitateentzat izan duen garrantzia. Espazio honetan jarduera eta interes anitzek egin izan dute bat, sarri gatazkak sortuz eta negoziazio- eta itun-prozesu konplexuak martxan jarriz. Egun, mendiak bere garrantzia sinbolikoa atxikitzen du, inguruko herrietako biztanleen paisaia emozionalean erreferentzia garrantzitsua baita oraindik. Horren lekuko dira, besteak beste, Hernion egiten diren erromeria jendetsuak, mugarrien aldizkako errebisioak edota astebururo gailurrera igotzen den jende-kopurua.

Arlo sozialean eta ekonomikoan, aldiz, joera kontrakoa izan da. Abeltzaintzaren eta basogintzaren iraganeko garrantzia galduta, mendialdeak aisialdirako gune gisa gelditzen ari dira pixkanaka. Ikuspegi urbanozentrikotik, eguneroko bizitzarekin lotura eskasa duten elementutzat jotzen dira, gero eta gehiago ondare "natural" gisa kontzeptualizatu, eta ideia horren arabera dimentsio guztiz kontenplatibo batean babestu. Prozesu honek mendeetan zehar eraikitako oreka agroekologikoarentzat izango dituen ondorioak ikusteke daude oraindik. ●

NAOMI KLEIN

Distopia teknologikoa azkartu shock pandemikoa baliatuz

Giza kontaktua gutxienera murriztu duen jendartea. Tele-osasuna, tele-hezkuntza, tele-lana, gidaririk gabeko ibilgailuak, adimen artifizialean oinarritutako armadak eta muturreko kontrol soziala. Horretarako beharrezko bitarteko teknologikoak, azpiegiturak eta informazio fluxuak enpresa handien eskuetan eta kontrol publikotik at. Hori da Silicon Valleyko inperio teknologiko nagusiak aspalditik bultzatzen duen etorkizuna. Naomi Kleinek ohartarazi du shock pandemikoa baliatzen ari direla proiektu horretan sakondu eta erresistentziak indargabetzeko, Pantailaren Itun Berria inposatuz (*Screen New Deal*). *The intercept* atarian argitaratu duen lan mardularen laburpena dakarkigu orriotara.

Z. OLEAGA

Etorkizun horretan, gure etxeak ez dira inoiz gehiago espazio soilik pertsonalak izango, baizik eta, abiadura handiko konektibitate digitalaren bidez, gure eskolak, mediku-kontsultategiak, gure gimnasioak eta, estatuak hala erabakitzen badu, gure espetxeak. Jakina, gutako askorentzat, etxe horiek berak gure lantoki bihurtzen ari ziren, inoiz itzaltzen ez direnak, eta pandemiaren aurreko gure entretenimendu-leku nagusiak, eta zaintzapeko espetxeratzea 'komunitatea'goraka zihoan". Pandemiak prozesu hori *warp* abiaduran (argia baino azkarrago mugitzeko forma teorikoa) azeleratzeko testuinguruu aproposa sortu du, Naomi Kleinen ustez. Etorkizun horretan, "gure mugimendu, hitz eta harreman bakoitza arakatu eta datuak atera daitezke, gobernuaren eta erraldoi teknologikoen arteko aurrekaririk gabeko akordioen bidez".

Kleinek New York Estatua eta Eric Schmidt jartzen ditu adibide bezala. Baina, ohartarazten du, "anbizioak edozein estatu edo herrialdetako mugetatik haratago doaz". Maiatzean, New Yorkeko gobernadore Andrew Cuomok Schmidt aurkeztu zuen "estatuaren COVID-19 osteko errealitatea berrirudikatzeko" funtzioa duen batzorde baten buru. Schmidtek lehentasunak marraztu zituen: "Tele-osasuna, urruneko ikaskuntza eta banda zabala. Orain aurkez daitezkeen irtenbideak bilatu behar ditugu, eta gauzak hobetzeko teknologiaren erabilera bizkortu". Googleren CEO (zuzendari exekutibo, *chief executive officer*) ohia da Schmidt. Egun Defentsako Berrikuntza Batzordearen eta Adimen Artifizialari buruzko Segurtasun Nazionaleko Batzordearen (NSCAI) lehendakaria da, besteak beste. Lehenbizikoak AEBetako Defentsa Ministerioa aholkatzen du –armadan adimen artifiziala gehiago erabili dadin–, eta NSCAIk Kongresua –segurtasun nazionalerako eta ekonomiarako arriskuen aurrean, esaterako–. "Bi batzordeak Silicon Valleyko CEOez eta Oracle, Amazon, Microsoft, Facebook eta, noski, Schmidtek Googlen dituen lankideez beteta daude", dio Kleinek. Gobernua aholkatzen duen aldi berean, Schmidtek milaka milioi ditu akzio eta inbertsioetan Googlen eta beste enpresa teknologikoetan.

TXINA MAMU ETA EREDU

Schmidtek denbora darama presio lana egiten AEBetako gobernuak teknologian eta adimen artifizialean diru gehiago inbertitu dezan eta sektore publiko eta pribatuaren arteko harremanak estutzen. Txina mamu zein eredu gisa astintzen du horretarako: mamua, teknologikoki aurreratuagoa dagoenez AEBei aurre hartuko omen dielako munduan potentzia gisa; eredua, sektore pribatu eta publikoaren arteko aliantza ekonomiko eta politiko estuagatik. 2019ko maiatzeko aurkezpen batean, azaldu du Kleinek, NSCAIk ohartarazi zuen Txinak aliantza publiko-pribatuak egiteko borondatea duela "zaintza masiboan eta datu-bilketan" –aurpegien azterketarako teknologia ikur–, eta hori potentzien arteko "lehiarako abantaila" dela. Azaroan, Kongresuarentzako txosten batean, NSCAIk esan zuen AEBak eta Txina "lehia estrategikoan" daudela eta lehia horretan, "adimen artifiziala erdigunean egongo da. Gure segurtasun eta ekonomia nazionalaren etorkizuna jokoan dago". Presio eta propaganda lana eremu publikoan ere egiten du Schmidtek. 2020ko otsailean "Silicon Valleyk Txinaren aurrean galdu lezake" artikulua argitaratu zuen *The New York Times*-en. "Gobernuaren eta industriaren arteko aurrekaririk gabeko elkarlanak" aldarrikatu zituen.

Kleinek distopia teknologikoarekiko erresistentziak daudela gogorarazi du, eta horrek mugak ezartzen dituela: "Duela oso gutxi arte, korporazio horien aurkako gaitzespen publikoa hazten ari zen. Amazonek New Yorkeko egoitza baterako planak bertan behera utzi behar

izan zituen tokiko oposizio irmoaren ondorioz. Googleren Sidewalk Labs proiektua [kontrolean oinarritutako hiri inteligenteak] etengabeko krisian zegoen, eta Googleko langileek berek uko egiten zioten aplikazio militarrekin zaintza-teknologia eraikitzeari". Artean ez zen COVID-19aren pandemiarik, eta osasuna ez zegoen politika horien beharra justifikatzeko kezken artean.

ERRESISTENTZIEN AURREAN, OSASUNAREN BANDERA

"Orain, neurri horiek guztiak (eta gehiago) datozen urteetan gurekin egongo den birus berri batetik babesteko dugun itxaropen bakartzat saltzen ari zaizkio jendeari", dio Kleinek. New York Estatuan konfinamendua ezarri eta bi astera artikulu berria argitaratu zuen Schmidtek *Wall Street Journal*-en. Artikuluan "Tele-guztian oinarritutako etorkizuneko ekonomia eta hezkuntza sistema" baten alde egiten zuen, dirua herritarrek jarriz eta lidergoa, aldiz, enpresa pribatuek: "Amazon bezalako enpresek badakite nola hornitu eta banatu modu eraginkorrean. Zerbitzua eta aholkularitza eman beharko diete sistema informatikorik eta esperientziarik ez duten gobernuko funtzionarioei (...) Iraintzea maite dugun korporazio horien onura sakona da, komunikatzeko gaitasunari dagokionez, osasunari aurre egiteko, informazioa lortzeko. Pentsatu nolakoa izango litzatekeen zure bizitza Estatu Batuetan Amazon gabe". Eskertuta egon beharko lukete herritarrek Schmidten ustez, haiei mesede egiteko enpresa horiek egiten dituzten inbertsioengatik eta sortzen dituzten erremintengatik.

Kleinek ez du hitz egiten etorkizun urrunaz, eza AEBez soilik ere. Inperio teknologikoak egoera baliatzen ari dira orain, munduko bazter guztietan distopia teknologikoan aurrera egiteko. Australiako Gobernuak Amazon kontratatu du COVID-19aren jarraipenerako aplikazio sistema "polemikoaren" datuak gordetzeko. Kanadako Gobernuak ekipamendu medikuak posta zerbitzu publikoaren bidez ez, Amazonen bidez mugitzen ditu.

Teknologiak osasun krisiari aurre egiteko egin ditzakeen ekarpenak ez ditu auzitan jartzen Kleinek, baina eztabaida politiko publikoa, gardentasuna eta kontrol demokratikoa eskatzen ditu. Erabakia politikoa baita, ez teknikoa: pantailetan inbertitu –arrakala digitala areagotuz, besteak beste– edo irakasleetan, azpiegitura hobeetan eta aire libreko hezkuntzan, esaterako. Beste horrenbeste osasunerako, eta jendarterako oro har.

"Konpainiak teknologikoek urruneko ikaskuntzarako, tele-osasunerako, 5Grako eta gidaririk gabeko ibilgailuetarako presio eta lobby kanpaina gogorra irabazten badute, beren *Screen New Deal*-a, ez da dirurik geratuko premiazko lehentasun publikoetarako, gure planetak premiaz behar duen *Green New Deal* (Itun Berde Berria) kontuan hartu gabe. Aitzitik, gailu distiratsu guztien prezioa irakasleen kaleratze masiboa eta ospitaleen itxiera izango da". ●

"Amazon bezalako enpresek zerbitzua eta aholkularitza eman beharko diete sistema informatikorik eta esperientziarik ez duten gobernuko funtzionarioei"

E. Schmidt

BRAVOK UTZIA

“Gaur egun oso garbi dago txirrindularitza”

GARI BRAVO

EUSKALTEL-EUSKADIKO TXIRRINDULARIA

Hamarkada bat darama Gari Bravok goi mailako ziklismoan. 20 urte eskasekin iritsi zen Caja Ruralera, eta geroztik bidea egin du tropelaren barruan. Garaipenik ez du zakuan, baina bai esperientzia eta bizipen ugari. Lazkaotarrak ilusio berezia du lehiari berriro ekiteko, soinean Euskaltel-Euskadiren maillota eramango baitu. 2013an ere jantzi zuen, eta azken bost urteak Muriasen eman ondotik, Euskadi Fundazioaren taldera itzuli da. “Errepide bazterrean garai bateko marea laranja” ikusi nahiko luke.

EÑAUT AGIRREBENGOA

Ate joka da denboraldia, lau hilabeteko geldialdiaren ostean. Zer sentsaziorekin itzuliko zara lehiara?

Orain artekoa motza egin zait. Argentinan hasi ginen, eta segidan Portugalera joan ginen. Eta gero, Frantziako bi klasiko lehiatu genituen. Denborarik ez nuen izan puntu-puntuan jartzeko, beraz, askorik ere ez dut galdu hilabete hauetan. Sasoiari ahalik eta ondoen eusten saiatu naiz etxean, arrabolarekin; eta konfinamenduaz geroztik, pixkanaka hobera egiten joan naiz. Nahiko ondo itzuliko gara lasterketetara. Dena ondo badoa, laster hasiko gara lehiatzen, eta denbora izango dugu sentsazioak fintzeko.

Etxealdia nola bizi izan duzu? Sabaia gainera erori al zaizu?

Aurreneko bi asteak oso onak izan nituen. Eguraldi ona egin zuen, eta terrazan arrabola saioak egiteko probestu nuen. Gero eguraldi txarra etorri zen, eta bizpahiru eguneko beheraldia izan nuen. Baina hortik aurrera, oso ondo. Txintxo ibili naiz, eta orokorrean, uste dut denok arduraz jokatu dugula. Gehien miresten ditudanak, noski, lanean jarraitu dutenak dira. Gure bizitza salbatzearren dena eman dutenak, eta gu ondo egon gintezen gelditu ez direnak. Gero arazoaz paso egin duten gutxi horiek daude, baina ni alde onarekin gelditzen naiz.

Azken asteetan jo eta su ariko zinen errepidean. Zenbat ordu egin dituzu?

Konfinamendutik atera bezain pronto, kostaldeko buelta egin nuen. Eta behin aukera edukita, Nafarroarantz jo nuen. Pila bat gustatzen zait hara joatea. Poliki-poliki hasi naiz, baina estutu egin dut azken aste hauetan. Asteko 25-27 ordu atera zaizkit. Horrek esan nahi du bost edo sei orduko entrenamenduak nahiko segidan egin ditudala. Uste nuen okerrago egongo nintzela, baina azkenaldian frogatu dut ez dudala behera egin; are gehiago, nire test pertsonaletan orain arteko emaitzarik onenak lortu

ditut. Gero errepidean erakutsi behar da hori, baina pozik nago oraingoz.

Inoiz baino sasoi labur eta trinkoagoa izango da, eta baldintza gogorrak izango dituzue kutsatzeak ekiditeko. Oso arraroa izango da dena, ezta?

Hala da. 35 lasterketa egun inguru izango ditugu, eta denak jarraian izango dira. Dena ondo badoa, orain hasi eta urrian bukatuko genuke, Ordiziako klasikoan. Aukerak aprobetxatu egin beharko ditugu, denboraldia oso azkar pasako delako. Gogotsu gaude denok, gogorra izan delako lasterketarik gabe egotea. Nik ez dut beldurrik egoera hauetan lehiatzeko, baina egia da errespetu pixka bat ematen didala egon daitekeen jende nahasketak. Nik ez dakit ondokoa non egon den, nola egon den... Kaleak ere oraindik beldur apur bat ematen dit. Protokolo zorrotza egongo da, eta probak egingo dizkigute. Gauzak oso zorrotz egin behar dira.

Hamargarren denboraldia duzu profesionaletan, eta birjaiotako Euskaltelen ariko zara. Ilusio handia egiten dizu berriz ere laranjaz janzteak?

Dudarik gabe. Aurrez 2013an aritu nintzen Euskaltelen, eta gehien gozatu nuen urtea izan zen. Oso giro ona zegoen taldean, eta munduko lasterketarik onenak lehiatzen genituen. Tamalez, desagertu egin zen, eta behera egin nuen. Kosta egin zitzaidan berriz ere abian jartzea. Muriasen bost urtez izan nintzen, baina beti izan nuen buruan Euskaltel zenaren oroitzapena. Berriz ere halako proiektu bat sortzen bazen, bertan egon nahi nuen. Apur bat nekatuta bukatu nuen Muriaseko azken urtea. Itzalita bezala nengoen, eta haize berria behar nuen: taldekide berriak, zuzendari eta prestatzaile berriak... Euskadi Fundazioaren aukera sortu zen, eta ez nuen bitan pentsatu. Murias desagertuko zela jakin aurretik egin nuen tratua.

Begirada atzera botata, pozik zaude orain arte osatu duzun ibilbidearekin?

Oso harro nago egindakoaz, eta urte gehiagoan irauteko gogoak ditut. Iaz gainezka eginda nengoen, baina aurten ez. Inoiz baino motibazio handiagoa daukat. Hamar urtean ez dut garaipenik lortu, eta agian jendeak emaitzei begiratzen die gehien; baina norbera bere lanarekin gustura egotea ere oso garrantzitsua da. Hamarkada batez maila profesionalean iraun badut, gauzak ongi egin ditudan seinale da. Bestela, ez nintzen hemen egongo.

Zein izan da zure ibilbideko unerik onena? Eta txarrena?

Onena, beharbada, Portugalgo Itzulian gazteen saria irabazi nuen eguna. Eta txirrindularitzak eman didan kolperik gogorrena ere proba hartan jaso nuen: osaba bat hil zitzaidan. Ni ikustera etorri zen, eta bertan izan zen hamaika egunez. Itzultzerakoan auto istripua izan zuen, eta galdu egin nuen. Bestela, kirol mailan, asko sufritu nuen 2018ko Espainiako Vueltan, gaixo izan nintzelako. Oso gogorra da lehen egunetik tropelari ezin jarraitu ibiltzea. Egunak aurrera doaz, eta ezin diozu buelta eman. Nik etxera itzuli nahi nuen, baina taldeak Madrileraino iristeko animatu ninduen. Azkenean, lortu nuen. Satisfazio handia izan zen.

Sakrifizio handia eskatzen duen kirola da ziklismoa: entrenamendu gogorrak, elikadura asko zaindu beharra...

Betidanik ondo eraman izan dut. Abantaila dut neguan nahi dudan guztia jan arren, ez dudala pisu askorik hartzen. Lasaiago hasten duzu denboraldia. Baina xehetasunak zaindu egin behar dira,

E. AGIRREBENGOA

MOTZEAN

Entrenatzeko, hotza ala beroa?
Hotza. Beroarekin ito egiten naiz. Nahiago dut xiri-miri pixka batekin ibili.

Bakarrik ala taldean?
Normalean, bakarrik. Nahiago dut, lasaiago nabil. Taldean, erdi urduri jartzen naiz.

Potentzia ala sentsazioak?
Potentzia zehatzagoa da, ez dago eguraldiaren eta bestelako faktoreen menpe.

Gelak edo platanoa?
Ez naiz gel eta barra zalea, baina azkarrago hartzen duzu, eta lehenago ematen dizu behar duzun indarra.

Strava, bai ala ez?
Orain bai, baina erdi behartuta, datuak plataformetara pasatzeko. Kendu egingo dut erretiratzen naizenean.

Aldagailu mekanikoa ala elektronikoa?
Elektronikoa. Itzela da. Erraztasun handiak ematen ditu, batez ere eguraldi hotzarekin.

Idolo bat?
Alexandre Vinokourov. Ibilbide guztietan moldatzen zen ongi. Joseba Beloki ere asko gustatzen zitzaidan.

Igoera bat?
Asko gustatzen zait Otsagabiako ingurua. Larrau, adibidez, oso polita da.

Maniaren bat?
Denbora asko pasatzen dut konputagailua pizten eta itzaltzen. GPS seinalea hartu arte ez naiz abiatzen.

Tropeleko lagunik onena?
Jon Aberasturi. Euskadiko Txapelketa batean ezagutu nuen, eta lagun minak egin ginen.

Zaletasun bat ziklismoaz harago?
Alpinismoa. Denboraldi-aurrean asko ibiltzen naiz mendian.

BRAVOK UTZIA

eta nik Eibar futbol taldean dabilen Aurora Cid nutrizionistaren laguntza daukat. Prestakuntza ere asko zaindu behar da, Carlos Jimenez eta Patxi Vilarekin nabil. Xehetasun guztiak milimetroan zaindu beharra dago txirrindulari profesionala izateko.

Baina ez al dago pisuarekiko gehiegizko obsesioa? Badira ziklistak muturrera joan direnak ahalik eta argalen egon nahian.
Arrisku hori beti dago hor. Ziklisten obsesiorik handiena beti bere pisuan egotea da. Baina malgua izan beharra dago, eta noizbehinka gutiziak eman gorputzari. Jakin behar duzu zerk balio dizun eta zerk ez. Nik orain 61 kilo ditut. Demagun bost kilo soberan ditudala esaten didatela. Baina nik orain arte ikusi dut 61 kilorekin ematen dudala mailarik onena. Bost kilo gutxiagorekin, agian indarra galtzen duzu, eta okerrago zabiltza ordekan. Norbait profesionaletara iritsi denean, badaki noiz dagoen ondo. Niri ez zait gustatzen probak egiten aritzea. Eta orokorrean, taldeetan ez gaituzte gogorregi egiten. Obsesioa gehiago da ziklistarena: "Begira orain zain bat ikusten zait, orain beste bat ikusten zait...".

Osasuntsua al da eliteko txirrindularitza?
Bai. Egia da batzuetan astakeriak egiten direla: sei edo zazpi ordutako entrenamenduak, 300 kilometroko probak... Baina, nire ustez, gure gorputza halako gauzak egiteko dago sortua. Entrenatuta eta gauzak ondo eginda, hala ibiltzeko gai gara. Hori bai, harago ez nintzateke joango. Ultramaratoiak-eta ez zaizkit gustatzen. 24 ordu gelditu gabe, eta halakoak. Miresten dut, baina gehiegi iruditzen zait. Gure meritua abiaduran dago. Batzuetan, orduko 45 kilometrotik gorako batez bestekoa lortzen dugu 200 kilometroko probetan. Jende askok pentsatzen du: "Hauek lepo sartuta joango dira". Ba ez. Hemen ez dago misteriorik; ondo zaindu eta entrenatu, besterik ez.

> *"Jende askok pentsatzen du: 'Hauek lepo sartuta joango dira'. Ba ez. Hemen ez dago misteriorik; ondo zaindu eta entrenatu, besterik ez"*

Hain juxtu, ziklismoak beti du gainean dopinaren mamua. Nola bizi duzu hori tropel barrutik?
Nahiko ondo. Itsusiagoa izango zen gertuagotik bizitzea. Zorionez, ez dut gauza arrarorik ez egin, ez ikusi. Baina bai, pena ematen dit txirrindulariak iruzurtitzat hartzeak. Nik beti alderatzen dut: futbolari batzuei ez diete guri egiten dizkiguten kontrol guztiak egiten. Dirua ematen dutelako, eta guk ez. Zenbat kontrol pasa izan ote ditut nik... eta edozein tokitan. Oraintxe bertan etorri daitezke kontrola egitera,

"Euskadi Fundazioaren aukera sortu zen, eta ez nuen bitan pentsatu. Murias desagertuko zela jakin aurretik egin nuen tratua".

BRAVOK UTZIA

eta ezin duzu ezetz esan. Garai batean iruzur asko egon zen, eta fama hortik dator. Baina gaur egun oso garbi dago txirrindularitza. Egiten duguna gure bihotzetik eta hanketatik ateratzen dugu.

Eta zer egin beharko litzateke kirol honen irudia garbitzeko?

Garai ilunen ostean, pasaporte biologikoa ezarri zuten. Txirrindulariok beharbada ez dugu gogor egin gure garbitasuna adierazteko, bai jendeari, bai Nazioarteko Txirrindularitza Batasunari, bai Dopinaren Aurkako Munduko Agentziari. Baina tira, arauak hauek dira, eta onartu beharra dago. Puntu bateraino ondo iruditzen zait, baina batzuetan gehiegizkoa izan daiteke. Neskarekin oporretara joan, eta agian hor agertu ahal zaizkizu. Eta egia da gauzek hobera egin dutela. Garai batean, hiletetan eta guzti agertzen zitzaizkizun.

Zer egoeratan ikusten duzu Euskal Herriko txirrindularitza?

Egoera nahiko ona da. Euskaltelek urratsa egin du, Caja Rural eta Movistar ere hor daude... baina egia da afizionatu talde gutxiago dagoela. Eta maila horretako emaitzak ere hobeak izaten ziren garai batean. Urte txarrak izan dira, baina uste dut gauzek hobera egingo dutela. Berriz ere hemen dugu Euskaltel zenaren zati bat, eta ea egitura handituz joaten den. Polita litzateke gazteek aukera gehiago izatea. Motibatuta ikusten ditut, erakusleiho berri bat zabaldu zaielako.

> *"Nik ez dut beldurrik egoera hauetan lehiatzeko, baina egia da errespetu pixka bat ematen didala egon daitekeen jende nahasketak"*

Zergatik ireki zaizkio Euskadi Fundazioari Muriasentzat itxita egon ziren ateak?

Emaitza aldetik, ezin daiteke azaldu. Urtetik urtera hazi egin zen Murias, eta pentsa, azkenean bi etapa irabazi genituen Vueltan. Zergatia kirol arlotik harago doa. Izan zen zerbait hemengo enpresak eta babesleak atzera bota zituena. Hor barruan izan zirenek jakingo dute zer izan zen. Hemen berriz, sekulako sarea sortu da: Orbeak bizikletak eta dirua jartzen du, Etxeondok ekarpena egiten du, Euskaltel ere sartu da... Proiektu sendoa da, eta horrek lasaitasuna ematen dizu.

Zer amets duzu?

Alde batetik, Euskaltel berriz ere Frantziako Tourrean ikustea, eta errepide bazterrean garai bateko marea laranja sortzea. Ilusioa egingo lidake talde hau hazten ikusteak. Euskal Herriko Itzulian eta Espainiako Vueltan maillot honekin aritzea ere polita izango litzateke. Eta eskatzen hasita, garaipen bat ere gustura hartuko nuke! Gertu izan dut batzuetan, baina errematatzea falta izan zait. Batzuetan, gutxien espero denean iristen da... Ikusiko dugu. ●

Izurri Beltza sindikatu lanetan

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Europa, 1353. Izurri Beltzaren erasoaldi bortitzena, bost bat urte lehenago hasitakoa, arintzen hasi zen, pandemiak oraindik ere triskantzak ekarri zituen arren. Europan 25 milioi hildako eragin zituen gutxienez eta Asia eta Afrikan, beste 40-60 milioi. Europan biztanleen herena hil zela esan ohi da, baina badira kopurua motz geratzen dela uste duten historialariak, eta portzentajea %60ra igotzen du zenbaitek.

Historialari marxisten arabera, feudalismoaren krisiak eragin zuen Izurri Beltzaren hondamena. Guy Bois (1934-2019) Erdi Aroko adituak zioenez, feudalismoaren "ondorio sozialak tamalgarriak izan ziren: nekazariak astintzen zituen pobretze prozesu gogorra hasi zen, eta horren froga izan zen 1300etik aurrerako heriotza tasaren hazkunde erregularra (...) Izurri Beltza ez da istripu bat, testuinguru horretan ulertu behar den zerbait baizik". Feudalismoak ez zuen *Yersinia pestis* bakterioa sortu, baina ahuldutako biztanleez elikatu zuen.

Lan harreman feudalek pandemia bultzatu zuten bezala, izurriak handik aurrerako lan harremanen aldaketa eragingo zuen, nahiz eta orduan langileen eskubideen aldeko mugimendu artikulaturik ez izan.

Despopulatzea orokorra izan arren, larriagoa izan zen landa eremuan, hildakoez gain, nekazari askok hirietara alde egin zutelako. Hiriak pixkanaka pizten ziren bitartean, feudoetan eskulan krisi larria sortu zen. Errentak bizibide zituzten jauntxoek ikusi zuten beren lurrak hustuta zeudela, uztak nork jaso ez zutela, prezioek behera egiten zutela, diru-sarrerek bezalaxe. Lurrak oso merke saldu edo errentan ematea edo, bestela, nekazariei soldatak askoz handiagoak eskaintzea beste erremediorik ez zitzaien geratu. Izurri Beltzak, nolabait, "nekazaritza sektoreko negoziazio kolektiboan" ezusteko indarra eman zien langileei.

PRADO MUSEOA

PIETER BRUEGEL ZAHARRAREN *HERIOTZAREN GARAIPENA* (1562) LANAREN ZATI BAT.

Eta burgesiari nekazaritzan inbertitzeko eta lurjabe gisa noblezia zaharra ordezkatzeko aukera eman zion. Jauntxo zaharrek produkzioa bultzatzeko erabiltzen zituzten estrategia sinpleak –lur azalera handiagoa lantzea, nekazariek lan ordu gehiago eginda–bertan behera utzi zituzten burgesek, une horretan ez zirelako bideragarriak. Laborantza metodo berriak eta lana arrazionalizatzeko tresnak sartu zituzten, nekazarien baldintzak hobetuz.

Baina, Izurri Beltzaren "lorpenak" mugatuak izan ziren. Erreforma haiek ez zuten eboluzio positiborik izango handik aurrera langileen eskubideei dagokienez, finean, ugazaba berriek betiko helburuak zituztelako: irabaziak handitzea. Eta langileen baldintzak horren menpe egongo ziren luzaroan. ●

ARKADIA FIRMA ARCHEOLOGICZNA

Kondaira egiaztatua

Polonia hegoaldean, Jeżowe herri inguruan, azken mendetan kondaira bat zabaldu da: hango basoetan ezkutatuta haurren hilerri bat dago. Bada, berriki, S19 errepidea eraikitzeko lanetan ari zirela, kondaira egiaztatu dute. 100 hilobitik gora aurkitu dituzte eta horietatik %80 inguru haurren arrastoak dira. Ehorzketak XVI. eta XVII. mendeetan egin zituzten, bakoitzak bere hilobia du eta, beraz, hilerriak ez zion larrialdi bati edo ezohiko egoera bati erantzun. Gainera, haur gehienek txanpon bat dute ahoan, baina horrek ez ditu adituak harritu: Antzinaroko ohitura izan arren –Karonteren oboloaren erritualaren parte zen Grezian eta Erroman–, ohiturak luze iraun zuen; Pio IX.a aita santua, esaterako, oboloa ahoan zuela ehortzi zuten 1878an. Baina beste galdera bat utzi du agerian aurkikuntzak: non daude helduen gorpuzkinak? ●

ARITZ GALARRAGA

Galarragarekin zaharrak berri

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Sarri entzun ohi dut lantokian esamolde hori: "zaharrak berri". "Zer moduz?", "zaharrak berri". Askotan tonu, nola esan, negatiborainokoa ez, baina monotonian eroritakoaren aurpegi goibelarekin-edo. Eta tira, zahar hori ez denean txarregia, behintzat, uste dut zaharrari begiratzen diogula gehiegitan ikuspegi triste batetik. Titularrarekin eman nahi izan diot ukitu positiboago bat. Ulertuko duzu, azken hamarkada honetan inoiz irakurri baduzu Aritz Galarragak ARGIAn liburu zaharren atalean idatzitakoa, berak eman nahi izan dion nobedade puntua. Zaharra ere izan baitaiteke berri.

Ez dira hausaz aukeratutako liburuak izan. Euskal literaturaren ibilbidea hainbat ertzetatik hartzeko eta lantzeko barne-ariketa egin du kazetariak eta ordena logiko bat, edo behintzat oreka bat eduki du denak. Euskal literaturaren idazle, genero, argitaletxe, garai eta abarrekoen arteko oreka. "Abentura baten gisara" definitu du hamar urteotako lana Galarragak berak eta, zehaztu du: "Claudio Magrisek zioen egiazko kritiko literarioak detektibearen antza daukala. Eta agian arrazoi zuen, hamar urteotan eraman dudan ariketa honek gehiago izan duelako, testuen interpretaziotik baino, ezezagun, ezkutuan, ahaztuta zegoenaren bilaketatik".

Asmoak ere agortzen dira eta dinamika errepikakorrak sor daitezke. Horrek kezkatzen du kazetaria. Ia ehun liburu izan dira orrialdeko protagonista. Beti saiatu da egilea idazkera aldetik ukitu propioa ematen iruzkinei eta azkenerako bazuen sentsazioa "txurroak bezala" ateratzearena. "Ez nuen atalaren kopia txar bat egiten bukatu nahi", azaldu du.

Aldebakartasunez independentzia aldarrikatu du Galarragak. Bukatutzat eman du hamar urteotako prozesua. Amaitu dira liburuen iruzkinak. Baina harremanak ez dira eten, ARGIAk ez dio horrela eta horrela alde egiten utziko eta prozesua finitu aurreko negoziazioetan alde biek onartu dute, liburuen iruzkinekin ez, baina beste kolaborazio batzuekin jarraitzea. Hemendik aurrera, *Panorama* ataleko "Humanitatearen une gorenak" zutabea sinatzen jarraituko du. ●

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan Argia Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

"Euskaltzalea naizelako eta euskarazko informazioak eta orotariko edukiak eskura eduki nahi ditudalako".

Bilboko Oscar

"Aukera dagoenean proiekto onak bultzatu behar direlako (Telegrametik jarraitzen zaituztedanetik, lan bikaina egiten duzuela iruditzen zait, mila esker egindako lanagatik)".

Plentziako David

"Kalitate handiko kazetaritza egiten duzuelako eta euskaraz; izaera kooperatibista eta komunitarioa duen proiektua delako, bada nahikoa arrazoi!".

Elizondoko Ane

"Kazetaritza independientea bizirik BEHAR dugulako eta nire interesekoak diren gaiak euskaraz jorratzen dituzuelako".

Bilboko Alba

BIDANKOZEKO KATALIN SATORRA UXA UXA AKAZATZEN

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Satorra baratzetik kanporatzeko, sator-belarra boladan dago.

Sator eta satagin, suge eta sugegorri, sagu eta sugandila, satitsu eta saguzar, sits eta sorbeltz, soro-muxarra ahaztu gabe, hanka-lauka edo hego-bika ibili, inguruan ditugun animaliak ezin ikusi ditugu. Batzuk arrazoiz. Esaterako, azaloreek (*Brassica oleracea var. botrytis*) burua egin behar duten unean, sailean hozkaka jo eta errotik mozten dituen satagina. Beste asko, ordea, laguntzaile finak ditugu, batik bat landareen arerioak harrapatzen dituztelako: suge, sugandila, saguzar, sorbeltz eta abar oso luze bat. Badira tartean zer egiten duten ez dakigunik ere, satorra adibidez.

Satorra haragijalea da, animaliatxoak besterik ez ditu jaten. Lehen batean landareak babestu nahi ditugunontzako lagunak dira: ez dituzte jango. Baina bere bizimodua osatzeko lurpeko galeriak egin behar dituztenean, aurrean topatzen duten sustrai samur guztiak jo eta hautsita egingo dute aurrera. Eta bere dietaren osagai nagusia zizarea da; bai, gure lurrak ontzen dituen zizarea. Beraz, satorra "txintxoa" edo "gaiztoa" da?

Sator jendeak sekulako gerrak ezagutu ditu. Lehengo mendearen hasieran, belle époque delakoan ("garai polita" omen euskaraz), modaren bihotzetik (Paristik) zabaldu zen sator larru finarekin egindako berokien bolada; beroki bat egiteko huskeria behar zen, 600-800 sator alegia. Milaka satorketari aritu zen mende erdiz. Etengabeko gerra hotza ere ezagutu dute. Era guztietako tranpa, tramankulu eta trepeta sator-mukuruetan. Satorra atzeratzeko asmoarekin, sator zuloan zer ez da sartu edo isuri izan? Alanbre ziztadun, beira zati, iltze, bizar xafla, burdin zorrotz, arrain ustel, erretako olio, naftalina, brea, galipot, alkaterna, bilgor eta koipe bero, formol, kaltzio karburo, estriknina eta halako pozoi, ke bonba, pixor eta minda, ur ustel... Alemanian babestuta daude satorrak eta, arazo larriren bat sortzen dutenean, harrapatu eta beste nonbaitera eramaten dituzte. Oso gutxitan ematen dute hiltzeko baimena.

Hil nahi ez eta satorra bere lurraldetik uxatzeko soinugailuak edo lurpean bibrazioak sortzen dituzten botila dantzariak jartzen dira burdin hagen edo hurritz makilen (*Corylus avellana*) muturretan. Lan hori egiten duten landareak ere badira: asma-belarra (*Datura estramonium*), otsobaba arra (*Helleborus foetidus*) eta sator-belarra (*Euphorbia lathyris*). Azken hori boladan dago, gero eta gehiago ikusten da baratze mugetan. Landare pozoitsua da, bere izerdi esnetsuak erre egiten du. Agi danean, satorrak kosk egiten dionean muturra erre egiten zaio eta atzera egiten du. Landare handia da, metro bete gara daiteke, eta, surtraije handia duenez, satorrari buelta handia emanarazten dio erredura saihestu nahi badu.

Dotorea da sator-belarra, zorten luze zuenaren inguruan hosto txorrotx urdinak, gainetik begiratu eta gurutze eran kokatuta ditu. Biurteko jotzen bada ere, askotan urte berean loratzen da. Erleek bezala intsektu askok gustuko dute lore hori. Hortik etorriko diren haziak hirukada daude kapsula batean, eta kapsula espaziala balitz bezala, hori lehertu eta haziak metro batzuetara hedatzeko ez du inoren beharrik.

Baratze, sega-belaze, soropil, belardi dotore, golf zelai eta antzekoetan sator-meta heresia da. Barazkiak harrotu, landareak altxa, sega kamustu, segatutako belarra zikindu, berdindutako lurra desberdindu... Jarri bada sator-belarra inguruetan; satorra kanpora.

Tartiku eta tartakin ere esaten zaio sator-belarrari. Azkuek jasoa du Erronkariko Bidankozen katalin-belar izena eta berari buruz ziotena: "Belar koni urte guzian ezau kentan lorea, exar dein artio". ●

OÑATIKO INGURUMEN BEKA

HERRIKO NEKAZARITZA LURREN ERABILERA BERRIEN BILA

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Duela lau urte sortu zuen Oñatiko Udalak ingurumen beka. Oñati inguruko ornogabe eta anfibioen azterketa egin zuten lehen deialdi hartan, herriko ekosistema ezberdinetan zein egoeratan zeuden ikertzeko. Duela bi urte, energia berriztagarrien inguruko lanari eskaini zioten beka, Goienerrekin elkarlanean. Aurtengoan, berriz, bizi-bizi dagoen beste gai bati eskaini diote: nekazaritzaren zein abeltzaintzaren izaera multifuntzionalari eusteko helburuarekin, udalerrian utzita dauden nekazaritza-lurren azterketa egin eta egoera horri buelta emateko ekintzak bilatuko dituzte.

NEKAZARITZAREN ONURAK EKOSISTEMAN

"Oñatin baserri asko dago eta landa eremua oso zabala da, baina azken urteetan okerrerako bilakaera ikusten ari gara, eta landa lurren erabilera gutxitu den heinean ekosistemak ere degradatzen joan dira", azaldu digu Axier Iraeta Oñatiko Ingurumen zinegotziak. Baserriko jarduera estentsiboak herriari eta ingurumenari dakarzkion onurez jakitun, Udalaren lurrekin eta azken urteetan erabilerarik ez duten pribatuenekin zer egin daitekeen aztertu nahi dute, aurrera begira ekintza praktiko zehatzak proposatzeko.

Gai honen inguruan aurretik ikerketa lan dezente eginak daudenez, azterketa teoriko txiki bat baino ez du egin beharko beka jasotzen duen pertsonak. Ondoren egingo den ekintza praktikoen planteamenduari eskaini nahi diote beka, bereziki. "Asmoa da aztertzea zergatik diren positiboak baserri eredu jasangarri eta ez intentsibo horren eraginak landa eremuan, eta hori oinarri hartuta, planteatzea ea herrian galtzen ari den jarduera hori berreskuratzeko edo eusteko zein egitasmo jar daitezkeen martxan". Egungo beharretara egokituko diren planteamendu eta aukera berriak nahi dituzte, lurren lehengo erabilerak zekartzan onurak gaurko bizimodu berriekin uztartuz.

12.000 EUROKO BEKA, BI URTETARAKO

Oñatiko edo inguruko jendeari zuzendu diete aurtengo ingurumen beka, aukeratu duten gaia dela-eta herriarekin eta bertako eragile eta baserritarrekin harremana izatea garrantzitsua delako.

Bekaren onuraduna pertsona bakarra edo lantalde bat izan daiteke, eta diplomatuak edo goi-mailako tituludunak izatea eskatzen da (taldeen kasuan, gutxienez erdiek bete beharko dute baldintza hori). Abuztuaren lehenean bukatuko da eskabideak aurkezteko epea. ●

'BAGA, BIGA HIGA...' SENTIKARIA

TALDEAREN HASIERA...

Donostiako Trinitate plazan 1971ko irailaren 8an Ez Dok Amairuk emanaldiaren bi saio egin behar izan zituen, sarrera guztiak agortu zirelako.
GURE GIPUZKOA / JAVIER GARAYALDE

...ETA AMAIERA

Ez Dok Amairuk 1970eko abuztuan estreinatu zuen *Baga Biga Higa*... sentikaria. Orain mende erdi, euskal kultur mugimendu abangoardistak lortu zuen talde izaera bururaino eramatea, kanta, poesia, dantza eta antzerkia, txalapartaren doinuz uztartzen zituen ikuskizun honekin. Baina paradoxikoki, batasun horren ondotik desagertu zen taldea.

URKO APAOLAZA AVILA

Bi bele batera doaz hegan Aketegiko tontorrerantz eta haien hegoek elkar jotzean egiten duten oihartzuna Urbiako zelai bakartietan barreiatu da: *tta-kun, tta-kun*. Txalapartaren soinu basatia da. Musika instrumentu horrek transmititzeko eta moldatzeko duen ahalmena baliatu zuten Ez Dok Amairuko kideek, *Baga, Biga, Higa...* sentikariko parte ezberdinak lotzeko kate batean, hasi eta buka. Gauza sinplea dirudien horrekin, urrats apurtzailea eman zuten ordura arte euskal kultura berreskuratzea helburu zuen mugimenduan: emankizunetan espresio artistiko ezberdinak fusionatu eta esperimentazio bide berriak ireki zituzten.

Duela mende erdi, 1970eko abuztuaren 22an aurkeztu zuten lehen aldiz sentikaria Portugaleten, eta ibilbide labur baina oparoa izan zuen; baina haren aztarna egungo kontakizunetan ganduz estalita ageri zaigu. Zergatik ote? Izenondoa Joxan Artzek jarri zion, ikus-entzuleen "sentimenduan" eragin nahi zutelako, poeta usurbildarraren arabera. Hala azaldu zion ARGIAri 1971n egindako elkarrizketa batean: "Herriaren problemak gure eginik, herriaren problemak agertu nahi genituen ahalik eta modurik zabalenean. Horregatik, herriaren maitasuna, sentimenduak eta sufritzen dituen injustiziak izan dira gehienbat guk erabili eta erabiltzen ditugun gaiak".

Artze borrokalaria, zapalduen aldekoa, boz-goran jarri behar dugu ezinbestean hemen, Ez Dok Amairuren alderdi deseroso eta ezezagunago horren arima baitzen, eta seguruenik duela 50 urteko sentikariak ere bazuen zerbait hortik: "Ez dugu artalde baten erdian amildu nahi" dio haren esku-programak. Eta erdian txalaparta, "oraingo gizonen (sic) lanaren adierazpena, taldearen beraren errorik sakonenetarikoa".

"EZ NEKIEN TXALAPARTAREN IZENIK ERE"

21 urte zituela, Joxan Artzek autoa hartu eta Europan barrena bidaiatzeari ekin zion –hasieran Jose Luis Zumeta margolariak lagunduta, ondoren bakarrik–. Munduan gertatzen ari ziren aldaketa ugariren berri izan zuen horrela: Kubako iraultza, AEBetako eskubide zibilen aldeko borroka, Frantziako langile grebak... Injustiziak salatu eta sistema zalantzan jartzeko kontrakultura mugimendu zabala sortu zen, askotan kantautoreek katalizaturik, Atahualpa Yupanquiren hitz melankolikoak tarteko, *viday*.



Goian, 1970eko abuztuaren 22an Portugaleten estreinaldirako prestaturiko afixa. Behean, Bartzelonako Romea antzokian 1971n egindako emanaldien iragarpena. Sentikariak arrakasta itzela izan zuen Euskal Herrian, baita hemendik kanpo ere.

Euskal Herrian ere, Francoren diktadurak industrializazioari paso emateko atea apur bat ireki orduko, protesta eta kultur berpizkundea borborka irten zen. Oteizaren *Quousque tandem...!*-en garaiak dira, eta norbere aldetik zebiltzan sortzaileak Ez Dok Amairun elkartu ziren, 1966ko urtarrilaren 9an Hernanin estreinako aldiz agertzeko. Polifoniarik gabe, ahots eta gitarra soilez lagunduta, joera berritzaileaz.

Artze anaiak, Joxan eta Jexux, Ez Dok Amairuren sorreran izan ziren hasieratik; ez da kasualitatea Remigio Mendiburuk talde hartako irudiari txalapartaren forma ematea. Bi urte lehenago, 1964an, Joxan harri eta zur geratu zen, Nestor Basterretxea eta Fernando Larrukerten *Pelotari* filmean txalapartaren ttakuna entzun zuenean Lasarteko areto batean: "Bat-batean gogoratu zitzaidan, zortzi urte nituela, herriko festetan, horixe nuela ikusia eta entzuna (...) Ez nekien izenik ere", azaldu zion Juan Luis Zabalari.

Elkarrek 2019an berrargitaraturiko *Txalaparta. Artze Anaiak* diskoaren liburuxkan laburbildu du Zabalak bi artisten harremana soinu-tresna horrekin. Txalaparta galbidean zegoela, apenas inork jotzen baitzuen jadanik, usurbildarrek berreskuratze lanari ekin zioten. Lasarteko Sasoeta baserriko Migel eta Pello Zuaznabar anaiekin jarri ziren harremanetan lehenik, haiek ikusi zituzten zortzi urterekin jotzen herriko festetan. Haiengandik ikusi zuten eta eszenatokietara eraman: "Mendiko baserri giroan bakanduta eta ezkutatuta zegoen antzinako musika tresna hura kulturaren plaza zabalera eraman zuten", dio Zabalak.

Beste bikote batzuk ere barneratu ziren txalapartaren mundura: Bixente eta Juan Mari Beltran anaiak. Artze eta zuaznabartarrengandik ez ezik, Astigarragako Erbetegi-Etxeberri baserriko –hau ere, Sasoeta bezala, urbanizazio eta errepideen ondorioz desagertua– Axentxio eta Ramon Goikoetxea anaiengandik ikasi zuten Bixente eta Juan Marik, herri musikaren ikerketan murgilduta baitzeuden. Geroago, handik urte batzuetara, Juan Marik txalaparta irakasteari ekin zion 1980ko hamarkadan Hernaniko musika eskolan, eta asko dira iturri horretatik edan duten egungo txalapartariak.

ERRITMO ZAHARRAK, AIRE BERRIAK

Txalaparta oso presente zegoen Ez Dok Amairuren hasierako emanaldietan, eta bestelako ekitaldi publikoetan ere ezinbesteko bihurtu zen. Euskaldunen antzinako izaera zekarren gogora, baina abangoardiaren ikur poetiko bihurtuta; gainera, haren perkusioak bazuen berezko elastikotasuna beste musika eta sorkuntza lanekin uztartzeko.

Hain zuzen, 1970eko abuztuaren 22an Portugaleten Ez Dok Amairuren *Baga, Biga Higa...* emankizun berria abian jarri zenean, atzera bueltarik gako pausoa eman zuten txalapartaren eta beste espresio artistikoen arteko uztarketa horretan: "Sentikarian elkarrekin lan egiten zuten, benetako talde izaera erakutsiaz", idatzi du *Egan* aldizkariaren azken zenbakian Artzeren poesiagintza ikertu duen Belen Oronoz Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakasleak. "Kantua, poesia, antzerkia, dantza... dena zetorren uholdean –dio Oronozek–. Alderdi estetikoa (janzkera, keinuak, mugimenduak...) zein teknikoa (soinua, argiak, taulako espazioaren banaketa...) zaintzen zituzten".

Kolektibotasun hori oholtza gainean sinbolizatzeko intentzio osoz, Baztango mutil-dantzarekin hasi eta amaitzen zuten espektakulua, itxi gabe zegoen zirkulua osatuz denek batera. Eta erdian hutsune oteizarra. *O Pello Pello*, *Xoxoak galdu du* eta beste kanta batzuen artean, irakurraldiak, txalaparta eta toberaren soinu metalikoa entzun zitezkeen; "erritmo zaharra, aire berriak" irakur liteke esku-programan.

Sentikarian hamaika kantari, musikari eta sortzailek hartu zuen parte: Lourdes Iriondo, Mikel Laboa, Xabier Lete, Jose Angel eta Juan Migel Irigarai, Joxan eta Jesus Artze, Nekane Oiarbide, Julian Beraetxe, Kepa Garbizu, Benito Lertxundi... Portugaleteko lehen emanaldiaren ondoren beste asko etorri ziren. Bretainian eta Okzitanian izan ziren, baita Bartzelonako Romea antzokian eta Donostiako Trinitate plazan ere –azkeneko honetan sarrera guztiak agortu eta bigarren saio bat egin behar izan zuten, *La Voz de España*-ren arabera izan zuen arrakastaren seinale–. Bi urte iraun zuen ibilbide hark, taldea desegin zen arte.

KONTRA-KULTURA ETA POLITIZAZIOA

Ordurako euskal kantagintza berriak kontzertuen esparrura jauzia emana zuen, zentsurari aurre egiteko modu bakarrenetako bat baitziren zuzenekoak. Gainera, ekitaldi musikal haiek kultur kontsumorako ez ezik aldarrikapenerako bilgune ere bihurtu ziren; esan liteke ondoren etorri ziren jaialdi handiagoen aitzindariak izan zirela, 1976ko *24 ordu euskaraz* edo 1978ko *Bai Euskarari* kasu. Nolanahi ere, *Baga, Biga, Higa...* egituraturik zegoen moduan, espektakulu osoa jarraian emateak eragozten zuen etenaldietan gertatzen zen "politizazioa", zenbaiten arabera.

JOXAN ETA JESUS ARTZE txalaparta aurrean. Soinu tresnaren ahalmen animikoaz jabeturik, 'Baga, Biga, Higa...' sentikarian erdigunean jarri zuten, eta ikusizunaren parte desberdinak kate berean lotzea lortu zuten horrekin batera. Elkar-ek 1966tik 1975era artean grabaturiko saioak berrargitaratu ditu berrikitan.

> Ez Dok Amairuren 'Baga, Biga, Higa...' emankizun berria abian jarri zenean, atzera bueltarik gabeko pausoa eman zuten txalapartaren eta beste espresio artistikoen arteko uztarketan

Ezin ahaztu dezakegu zein zen abagunea. 1968an ETAk Melitón Manzanas torturatzailea hil zuenez geroztik ugaritu egin ziren poliziaren sarekadak, salbuespen egoerak eta errepresioa. Sentikaria sortu eta hilabete gutxira, abenduan, Burgoseko Prozesua hasi zen.

Lantegietan eta kaleetan ez ezik, kultur munduan ere protesta giroak eztanda egin zuen; Katalunian, esaterako, 300 artista eta intelektual entzerratu ziren Montserrateko abadian amnistia eta askatasuna eskatzeko. "Euskal kulturak hasieran *kontra-kultura* bat izan behar du: kultura espainolaren suntsitzearen bidez egingo da", idatzi zuen Jean-Paul Sartrek Burgoseko Prozesuaren harira. Halako eta antzeko eztabaidak zebiltzan 70eko hamarkadako euskal kultur lapiko gorian.

Ez Dok Amairu barne desadostasunengatik desegin zela diote ordukoek, eta garaiko egoera politikoak ere izango zuen zerikusirik horrekin seguruenik. Sentikariarekin hasi eta amaitu zen taldea, nolabait esateko. Batzuek eta besteek bide desberdinak hartu zituzten. Artze anaiek jarraitu zuten kultura erabiltzen tresna apurtzaile bezala, Mikel Laboarekin egin *Ikimilikiliklik* ikuskizun multimedia izan zen horren erakusgarri. Eta txalapartak geroztik jarraitu du bere soinu animikoaz iraganaren oihartzuna geroarekin konektatzen, baita larrialdi garai zailenetan ere. ●

LIBURUA

Alez ale

UBERAN.ORG

BIDEKO HITZA. EUSKAL POEMA MODERNOEN ANTOLOGIA (1951-2019)

JUANJO OLASAGARRE

ALAI, 2020

IGOR ESTANKONA

Hasiera batean irudi luke ur handitan sartu dela Juanjo Olasagarre antologoa *Bideko hitza. Euskal poema modernoen antologia* (1951-2019) honekin (Alai, 2020). Hitzaurrean berak argitzen du asmoa, ostera: "Galde diezaiogun geure buruari itaun potolo hau: Zer da poesia? Milaka dira definizioak, baina definizio horren ertz batekin denok egingo genuke bat: asko irakurtzen ez den generoa dugu poesia; eta oraingoz, egotz diezaiogun horren errua poesiari berari, alegia, zeinua eta esanahia bata bestetik gero eta gehiago urrunarazi dituen artearen ildo historikoari, zeinak, bestalde, arte guztiei eragin baitie".

Eta guztiz kontra egon arren hitzaurrean esaten direnekin, pozarren naiz. Asmo okerrek batzuetan gauza ederrak dakartzate. Olasagarrek antologia bat ondu du leun-leun eroan nauena azken mende erdi luze honetako pieza ederrenetan barna, biolentoenetan barna, finenetan barna. Poesia ez baita, guk ere hala sinetsi dugun arren, gutxi irakurtzen den generoa gurean. Poesiak inoiz ez dio utzi zeinuarekin eta esanahiarekin jolasteari. Poesia ez da gizartetik urrundu, poesiarekin gozatu egin dugu, poesia indartsu dago, euskal poesia da Antonio Casado da Rocharen puncha, Castillo Suarezen zeta, Pako Aristiren yang-a, Luigi Anselmiren harlandua, Beatriz Chiviteren ekialdeko haizea: "Zortzi t'erdiak dira/ biak berandu dabiltza/ alaba azkarragoa da.// Bere esku txikiarekin/ bulzatzen du aita".

Eta *Bideko hitza* irakurriz otu zait gero eta hobeak garela, gero eta aberatsagoak direla gure erregistroak, eta lehengo existentzialista vs. liriko dikotomiaz harago gure literaturak emariak dituela milaka, hibridazioak, Angel Erroren ironia, Luis Berrizbeitiaren perfekzioa, Joseba Sarrionandiaren duintasuna, Jose Luis Otamendiren elokuentzia: "Gu munduarenak gara/ baina mundua ez da gurea/ gu euriarenak gara/ jendearenak gara/ baina mundua ez da gurea".

Eta harrotasun pentsamenduak erabili ditut antologia hau bukatu ahala, ikusi dudanean ni ere bertan naizela, nire bi poema kuttunekin. Olasagarrek egin du selekzio bat maisu batena. Ederrenak hautatu ditu: bere bihotzean durundu handiena egin dioten azken ia zazpi hamarkadetako uzta oparoaren ale doratuenak. ●

MUSIKA

Musika Hamabostaldi freskoa

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Garai zailak bizitzen ari gara denerako, baita, eta agian bereziki, kulturarako ere. Distantzia egokiei eustea eta osasun-agintarien gidalerro guztiak betetzea oso zaila da leku itxietan, jende asko dagoenean. Eszenatoki baten gainean orkestra oso batek, edo abesbatza handi batek, osasun publikorako apustu arriskutsuak dirudite.

Horregatik guztiagatik, Musika Hamabostaldiaren antolatzaileentzat ez da erraza izan aurten programa egitea, aurretik programatuta zegoenaren ordez. Hala ere, ekainaren amaieran, azkenean, publiko egin zen programa hau, non bertako artistek eta talde txikiek protagonismoa duten. Zalantzarik gabe, ahalegin handia egin da, eta horregatik, jendearen arreta merezi du. Aurten, kosta ahala kosta, Donostiako Musika Hamabostaldiaren 81. edizioa dugu. Haize freskoa izango da, hilabeteetako sufrimenduaren ondoren.

Lerro hauen bidez, saiatuko naiz zuentzako gomendio batzuk egiten. Zalantzarik gabe, programatutako kontzertu guztiek xarma eta kalitatea dute edukien eta interpreteen ikuspegitik. Baina beti aipa ditzakegu nire ustez ezinbestekoak diren saio batzuk. Programa osatzen duten zikloetako bakoitzean, oharkabean igaro behar ez diren benetako harribitxiak aurki ditzakegu.

Kursaal Auditorioaren zikloan, lehen kontzertua abuztuaren 8an izango da, Euskadiko Orkestraren eskutik, Semyon Bychkoven zuzendaritzapean. Ziur aho-zapore ona utziko digula, Beethoven-i eskainitako programa batekin. Era berean, ez nuke Grigory Sokolov pianistaren errezitaldia galduko hilaren 16an, Mozart eta Schumannen lanekin.

QUINCENAMUSICAL.EUS

MUSIKA HAMABOSTALDIAN IZANGO DA EUSKADIKO ORKESTRA. ABUZTUAREN 8AN JOKO DU KURSAAL AUDITORIOAN, DONOSTIAN.

Topaketa interesgarriak izango dira San Telmo Museoan. Besteak beste, Euskal Herriko Gazte Orkestraren kontzertua izango da abuztuaren 1ean, egitarau bariatu eta zirraragarriarekin. Eta hilaren 17an, Gerhard Laukotearen kalitate handiak arrastoa utziko du entzuleengan, musika garaikideko emanaldi batekin.

Aurten, gainera, agertoki berri bat izango dugu, Tabakalera eraikina hain zuzen ere. Bertan izango diren ikuskizunen artean, Juan Laboreria baritonoaren errezitaldia nabarmenduko nuke, Javier González Sarmiento pianoan duela. Opera, zartzuela, euskal kantua eta frantses kantua interpretatuko ditu. Oso erakargarria, beraz.

Baina gogoratu hauek gomendio batzuk baino ez direla. Kontzertu guztietara edo gehienetara joaterik baduzue, uda musikal bizia biziko duzue, dudarik gabe. ●

Landako kumeak hirian

MARTA SENDIU JIMMY JAZZ

Konfinamenduko hilabeteek askorako eman dute eta aurretiaz martxan zegoen iraultza digitala bizkortu egin da. Ematen du lanerako bideokonferentzia, distantzia bidezko hezkuntza eta hainbat alorretan izandako aurrerapen telematikoa geratzeko etorri dela. Zuzeneko musikaren esparruan ere emankizun digitalen aldeko interesa areagotu da. Baina ba al dute etorkizunik *streaming* bidezko kontzertuek? Errentagarriak al dira? Zer balio dute esperientzia kultural bezala?

Dupla bikote arabarra indarberrituta heldu da ziurgabetasunez beteriko aro berritzaile honetara. Sorreratik izan duten filosofia eraberritzaileak ez du mugarik aguraindarrentzat eta Gasteizko Jimmy Jazz aretoan hilabetetan pilatutako hautsa harrotzeko asmoz heldu dira. Euskal folklorea zer den eta zer izango den birplanteatzen duen duo arabarrak 360 graduko eszenaratzearekin ekin dio zuzeneko kontzertu honi.

Nortasun propioa duen taldea da Dupla, landako izaera metropolikoarekin bateratu nahi duena. Horregatik, musikatik haratago, estetika, janzkera, jarrera eta irudia asko zaintzen dituzte. Arropa koloretsuak eta gurean oso erabiliak ez direnak baliatzen dituzte bideoklipetan, hala nola, kolore fosforitoak, eguzkitako betaurrekoak, tindatutako arropak, buru-berokiak…

Gaur egun modan dagoen musika urbanoa dute ardatz nagusi. Diruaz, lanaz, festaz, sexuaz eta drogez mintzo dira abestietan. *Volau* edo *Soy rico* dira horren erakusgarri. Esplizituak izan arren egunerokotasunean inguratzen dituzten gaiez dihardute, baina fantasiazko kutsu batez, *Dantza gaua, Nahi dudana izango naiz* edo egin berri duten *Preocupau* kasu.

Ordenagailuaren pantailatik irrika, dantzatzeko grina eta ondo pasatzeko gogoa helarazten dituzte uhinek. Oholtza led-argi bertikal batzuekin atondu dute, zirkulu txiki bat osatu eta Gari eta Beñatek haien segurtasun gunea sortu dute. Bi protagonista nagusiekin gitarra, bateria elektronikoa eta ordenagailu bat ageri dira ikuskizunean, eta haiekin batera hezurrak astintzeko aukera izango dute Jimmy Jazzek zozketatutako sarrera bikoitzaren irabazleek.

Abestien arteko inolako geldiunerik gabe egiten du aurrera kontzertuak, bata bestearen atzetik datoz *Somos así, Celebrando, Karma occidental* eta jaiari amaiera emateko hainbesteko arrakasta izan duen *Dantza gaua*. Dantzari bat igotzen da taulara eta dantzatzeko gogoa kutsatzen dio eszenatokiaren inguruan dagoen ikuslegoari. Norberaren ardatzaren gaineko *perreoa* da nagusi aretoan eta bateria elektronikoaren azken bonboarekin batera, Joselu Anaien *Marina Marina* entzun daiteke. Dantzatzeko arazo moralak atzean uztea lortu eta folklore kontzeptuaren birplanteamendua proposatzen dute arabarrek, arazo moralak atzean uzteko garaia, alegia. ●

EGILEA | **ANA ZAMBRANO**

Bertso-zopa

Osatu Iñigo Izagirrek 2019ko Gipuzkoako bertsolari txapelketan botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Beste bateko inularretan.* Gaia: Itxarongelan zaude operazioa hasteko zain. Damutu egin zara, eta alde egin nahi duzu.

Egia esanda dardar batean
gurutzatu dut atea
ez nago ziur ondo nabilen
edo den_____
basektomia egin nahi nuen
agian ez da kaltea
egia esan _____baita
zazpi ume izatea
bikoteak'e hala esan zidan
operatu ta_____. (bis)

"Benga Iñigo, animo, eutsi"
_____gera agurtu
eta muxu bat hortxe eman dit
maitasunez gera urtu
duela hogei urte ginanak
plaza baten_____
familian denok ze zoriontsu
zenbat lagun, denak juntu
eta _____arte inortxorekin
ere ez gera _____. (bis)

Ez dakit _____zer mozten duten
tuboren bat edo punta
baina ni behintzat egongela hontan
dardarka ta_____
beldurrarena da arrazoia
hori ezin dezaket uka
baina badakit zer _____den
ni behin etxean sartuta
bikoteak hona ekarriko nau
belarritikan_____.

I	H	U	T	U	A	T	R	A	P	A	D	A	M	N
J	N	Z	S	C	A	D	G	O	A	P	T	N	I	G
T	G	O	G	O	R	R	A	L	J	S	O	A	Z	J
H	D	C	D	E	B	U	P	H	S	J	R	R	U	L
D	B	D	H	U	T	Z	G	B	I	O	N	A	A	C
B	E	L	D	U	R	T	U	T	A	P	G	V	I	P
V	E	P	G	B	D	D	G	C	F	O	N	D	O	O
I	I	A	R	T	P	I	A	O	R	O	A	D	A	A
C	Z	A	D	F	D	S	G	P	U	D	T	E	E	P
E	H	E	G	M	A	P	V	U	Z	N	K	N	A	A
E	E	H	E	R	M	A	B	A	B	A	H	R	A	S
R	L	A	M	U	U	R	B	P	P	Z	F	D	R	A
J	D	L	P	D	T	A	F	O	T	J	D	A	M	K
L	U	A	I	L	U	T	J	J	F	G	Z	J	P	O
V	T	X	Z	C	N	E	C	I	U	F	I	P	A	D
L	A	E	I	J	T	A	F	B	D	P	V	G	E	P

Sudokua

ERRAZA

	7				4		5	
3	6		5					
		5					8	
	1	3		6		9		
		4	7		8	6		
		6		2		7	4	
	8					4		
					2		9	7
	9		1				3	

ZAILA

		6				5	1	7
				7		6	8	
8		5						
		9		6				4
			9		2			
1				4		8		
						9		3
	5	7		2				
3	9	4				2		

Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:

1. Otoitz bukaeran. / Haurren hizkeran txakurra. **2.** Gezi txikiak. **3.** Arabiar izenetan, seme-alaba. / Soldadu-multzoa. **4.** Eraso, oldartu. / Zilarra. **5.** Renioaren ikurra. / Bide-zidorra. **6.** Jantzietan lotura gisa josten den pieza txiki. / Izotz, horma. **7. Argazkiko arraina**. **8.** Egurra mokoaz zulatzen duen hegazti. / Portua (alderantziz).

GOITIK BEHERA:

1. Aditzari buruzko informazioa ematen duen hitz. **2.** Maiseatzeko ekintza. **3.** Adi. / Pausaldi. **4.** Neodimioaren ikurra. / Erabat, zeharo. **5.** Morroi. **6.** Hegazti mota. / Galioaren ikurra. **7.** Nafarroako udalerria. / 552 zenbaki erromatarrez. **8.** Pareratu aditzaren erroa. 9. Sendagaiak.

EBAZPENAK

Egia esanda dardar batean/gurutzatu dut atea/ez nago ziur ondo nabilen/edo den **disparatea**/basektomia egin nahi nuen/agian ez da kaltea/egia esan **gogorra** baita/zazpi ume izatea/bikoteak'e hala esan zidan/operatu ta **pakea**. (bis)//"Benga Iñigo, animo, eutsi"/**halaxe** gera agurtu/eta muxu bat hortxe eman dit/maitasunez gera urtu/duela hogei urte ginanak/plaza baten **ezagutu**/familian denok ze zoriontsu/zenbat lagun, denak juntu/eta **orain** arte inortxorekin/ere ez gera **damutu**. (bis)//Ez dakit **ondo** zer mozten duten/tuboren bat edo punta/baina ni behintzat egongela hontan/dardarka ta **beldurtuta**/beldurrarena da arrazoia/hori ezin dezaket uka/baina badakit zer **pasako** den/ni behin etxean sartuta/bikoteak hona ekarriko nau/belarritikan **helduta**.

ZAILA

3	9	4	8	1	7	2	5	6
6	5	7	3	2	9	1	4	8
2	1	8	6	5	4	9	7	3
1	6	2	7	4	3	8	9	5
5	4	3	9	8	2	7	6	1
7	8	9	5	6	1	3	2	4
8	7	5	1	9	6	4	3	2
4	3	1	2	7	5	6	8	9
9	2	6	4	3	8	5	1	7

ERRAZA

4	9	7	1	5	6	8	3	2
6	3	1	8	4	2	5	9	7
5	8	2	9	3	7	4	6	1
8	5	6	9	2	1	7	4	3
9	2	4	7	3	8	6	1	5
7	1	3	4	6	5	9	2	8
2	4	5	6	7	3	1	8	9
3	6	8	5	1	9	2	7	4
1	7	9	2	8	4	3	5	6



ESKER-ESKUIN: 1. AMEN, TOTO, 2. DARDOAK, 3. BIN, TROPA, 4. ESETSI, AG, 5. RE, XENDRA, 6. BOTOI, LEI, 7. AINGIRA, 8. OKIL, AIAK.
GOITIK BEHERA: 1. ADBERRIO, 2. MAISEO, 3. ERRE, TAI, 4. ND, TXOIL, 5. OTSEIN, 6. TARIN, GA, 7. OXO, DLII, 8. PARERA, 9. OSAGAIAK.

Maritxu Larzabal Duperou

PIARREZ LARZABAL
KOLEGIOKO ANIMATZAILEA

HERRIKO ELKARTEEN BUELTAN

Euskalduna da Maritxu. Lapurtarra baina, kasu, ez edonongoa: urruñarra. %100 urruñarra gainera. Hala azpimarratu ohi dute bertakoek. "Gazte denboran euskararekiko 'klik' bat izan nuen, zendu zen osaba bati esker. Etxean ikasi nuen euskaraz, ez naiz ikastolatik pasatakoa. Eta ikasketetan murgildu ahala, galtzen hasi nintzen. Ez nuen nahi, ordea. Beraz, AEKn sartzea erabaki nuen, baita herriko beste zenbait elkarteetan ere, eta horrek euskaldunago sentitzen lagundu ninduen. Hartzen eta ematen ikasi nuen elkarteetan izan nuen inplikazio garaian", azaldu du. Urruña ezagutzeko elkarteen bueltan egoteak ekarpen handia egiten duela dio, "herritarra sentitzen" laguntzen duelako. Herriaren behar eta interesak ezagutzen. Egun, beste elkarte batzuetatik jarraitzen du herriaren bizitza: "Denborak aurrera egin du, orain ama naiz eta haien aisialdiaren bueltako elkarteetan parte hartzen dut".

"Gure helburua euskaraz ikastea da eta ez euskara ikastea"

Hogei urte ditu jada Piarrez Larzabal kolegioak. Seaskaren bigarren kolegioa izan zen, gaur egun lau daude jada. Honek, ordea, badu berezitasun bat: ireki orduko, bertako guraso elkarteak animatzaile postu bat sortzea deliberatu zuen. Maritxu Larzabal Duperou (1978, Urruña) horrela iritsi zen bertara. Urruñarra, gaztea eta euskalduna. Urruñako Trinkete ostatuan izan dugu solasaldia, etxean sentitzen da bertan. Kolegioko jardunaz, garapenaz eta elkartasunaz hitz egiteko denbora izan dugu.

AITZIBER ZAPIRAIN IRANTZU PASTOR

Piarrez Larzabal kolegioa abiatu zenetik zaude bertan lanean animatzaile bezala.

1999. urtean hasi nintzen, kolegioa bera ireki zen une berean. Seaskaren bigarren kolegioa zen garaian: Xalbador Kanbon eta Piarrez Larzabal Ziburun. 70 ikasle ziren orduan eta egun 300 baino gehiago gara. Ziburuko marinela auzoan hasi zen dena, itsas lizeoarena izan zen egoitza zaharra erabili genuen kolegio gisa 2005a arte. Gaur egun bertatik pasatu eta ez dago deus. Gezurra dirudi kolegio bat egon zenik bertan. Baina guk oroitzapen eta anekdota ugari dugu gogoan. Uholdeak izaten genituen etengabe, arratoiak, pixa usaina... baina hain gutxi izateak batu egin gintuen eta giroa oso ederra zen. Gaur egun ez dugun berezitasun bat zuen. Egun ere oso ongi gaude, dena berria da eta itsas lizeoaren ondoan gaude berriz. Lapurdi kostaldeko kolegioa gara, eta izugarri emendatzen da haur kopurua. Hori oso baikorra da euskararen etorkizunerako. Baina hain handia izateak baditu bere alde on eta txarrak.

Zure animatzaile lana nola aldatu da garai hartatik?

Asko aldatu da. Denbora guztia talde txiki horrekin pasatzen nuen. Jolas garaietan tailer ugari egiten genuen. Irrati tailerrak egiten genituen, inauteriak ospatu... denak gogoratzen ditut irriz, kantuz eta alai. Jende ospetsua gonbidatzen nuen egun seinalatuetan etor zitezen eta pozik hurbiltzen ziren gugana. Erreferente euskaldunak eskaintzen genizkien ikasleei. Gaur egun ezinezkoa da, gehiegi gara. Ezin duzu 300 ikaslerekin atera. Ez da hobea edo okerragoa, ezberdina baizik. Baina segitzen dugu beti aitzina, eta hemen ere egiten ditugu bestak, jendea gonbidatzen segitzen dugu...

Gaur egun beste hiru kolegio ditu jada Seaskak, baina zurea da animatzaile postu bakarra. Nolatan? Norekin konpartitzen

"LAPURDI KOSTALDEKO KOLEGIOA GARA, ETA IZUGARRI EMENDATZEN DA HAUR KOPURUA. HORI OSO BAIKORRA DA EUSKARAREN ETORKIZUNERAKO".

dituzu laneko arrangurak, formakuntzak?

Ni ez naiz Seaskako langilea, kolegio honetako guraso elkartearen enplegatua baizik. Horren aldeko apustua egin zuten eta apustuari eutsiz segitzen dute, beharrik! Hasi berria nintzenean hezkuntza aholkulariarekin –erretiratua da jada– egiten nuen lan asko. Oso harreman estua genuen eta elkar elikatzen ginen. Bestalde, gainontzeko Seaskako hezitzaileekin harremanetan nago beti. Formakuntzak edo pedagogia egunak antolatzen direnean ere joaten naiz. Ez naiz hain bakarrik sentitu, hezitzaile ugari baikaude lau kolegioen artean. Animazio arloan aldiz, bakarra naiz, bai. Ikastegian zer nahi duten behatzen dut beti, ikasleekin batera.

Piarrez Larzabal kolegioak, Urruñako ikastolarekin batera, Ordiziako ikastolarekin harreman estua du. Zer dela eta?

Iparra Hegoa elkartea izan da harreman honen bitartekaria. Ikusgarriak, kontzertuak… antolatzen ditugu urtero, jada tradizio bilakatu direnak eta guretzako ezinbestekoak. Oso polita da, elkartasunak batzen gaituelako. Beharra duenari laguntzea da harremanaren helburua. Izugarrizko laguntza ematen digute eta horrek bihotza berotzen du. Beharrak beti hor baitaude. Aldi berean, horri esker deskubritzen ditugu guk ere hainbat artista, hainbat talde… Eman eta hartu, hartu eta eman. Hori da lotura aske honen funtsa.

Nola ikusten duzu egun nerabeen mundua?

Hizkuntza aldetik, gurean, denetarik dago. Haur gehienek euskara dute etxetik, baina badira asko eta asko egoera horretan ez daudenak. Guraso batzuek beren haurrak euskaraz ikastera ekartzen dituzte eta beste batzuek euskara ikastera. Azken hori ez da gure asmoa. Euskara hemendik kanpo ere ikasi daiteke. Gure helburua euskaraz ikastea da eta ez euskara ikastea. Ikasleak euskararen mundura eramatea, euskaraz.

Denbora libreari dagokionez, kolegiora ezin dute sakelakorik ekarri. Badakigu gaur egun dena pantailen bitartez pasatzen dela. Kontziente gara, baina hain justu nire lanpostuari esker, bestelako jardunak antolatzen ditugu: mahai-jokoak, kantu tailerrak, dantzak, mus txapelketa… Pantailen kontua gainontzeko sektoreak bezala lantzen dugu. Modu ludikoan eta adituekin.

Lanean emandako hogei urteek markatu dute zerbait zugan?

Bai, jarraitu behar ote dudan galdetzen diot nire buruari. Nik hala ere ongi pasatzen dut ikasleekin. Baina jada zaharregia ez ote naizen pentsatu izan dut batzuetan. Dena dela, bada beti atxikimendu bat. Ikasle bat zerbait antolatzeko gogoz zugana heldu dela ikustean, edo zuk antolaturiko horretan parte hartzeko irrikaz, edo gurasoek eskertzen didatenean halako edo besteko antolatu izana, horri esker beren haurrarengan emaitza ikusi dutelako… Beti dago su txiki bat eta itzaltzen ari dela sumatu arren, berriz pizten da. Lanean ongi pasatzea ederra da, eta hobe hala, bertan pasatzen baitugu denbora gehiena. Lan guztiek bezala honek ere baditu alde onak eta txarrak. ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

Nekane Murgak turuta bat erabiliz erantzungo die kazetariei hemendik aurrera

Joan den asteko koronabirusaren berragerpenen erdian Osakidetzak informazio gutxiago ematea erabaki ostean, Nekane Murga Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua plastikozko turuta batekin agertu da aste honetako prentsaurrekora. Aurrerantzean kazetarien galderei erantzuteko tresna hori erabiliko duela azaldu du. Hedabideak galdezka hasi direnean aldaketa horren motiboak jakin nahian, Murga barrez lehertzen hasi da, "hauteskundeak irabazi ditugu berriz" esan du, eta gero "tururu-tururu, tururu-tu-tuuuuu" esaten hasi da (baliteke azken honen transkripzioa erabat zehatza ez izatea). ●

SAREAN ARRANTZATUA

Emoiztazuz musukue



Benidorm (Gipuzkoa)

Ez-Sanferminak ongi pasa direnez, Enrique Mayak ez-Iruñeko ez-alkate izango dela iragarri du

Joan den astean aurtengo "ez-Sanfermin" jaien balorazio positiboa egin zuen Enrique Mayak eta haren gertuko iturriek aurreratu dutenez, ildo berean jarraitzeko asmoa dauka. "Ez-Iruñeko ez-alkate izendatuko du bere burua kurtso politiko berria hastean", azaldu du hemendik aurrera ez-Udala izango den erakundeko ez-aholkulari batek. "Bizi dugun giro ez-normal honetan, ez-nafarren aldeko ez-politikek hartuko dute zentraltasuna", gaineratu du. Hori bai, normaltasun berri honetan euskaldunen kontrako ez-neurririk ez da hartuko, alegia, lehen bezala "txungo dago panorama", bertako euskalgintzak prentsa-ohar batean azaldu duenez. ●

Atxega Jauregia

jatetxea

Aitzezarra,1

Zumartegi industrialdea

✆ 943 37 11 50

20170 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

ARGIA

Sasoi trumoitsu hauetan
inor ez dadila
ARGIArik gabe geratu

ALBOAN IZANGO GAITUZU

ARGIA txikitik eragiten
Komunitateak
komunitatea babesten du

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA